



# GAINDEGIA TXOSTENA 2011

**Izenburua:** Gaindegia Txostena / Informe Gaindegia 2011

**Egilea:** GAINDEGIA- Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

**Argitaratzailea:** GAINDEGIA- Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tel.: +0034 943 304 365  
[www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)  
[gaindegia@gaindegia.org](mailto:gaindegia@gaindegia.org)

**Hitz gakoak:** Euskal Herria, ekonomia, gizatea, kohesioa

**Aholku Batzordeko Zuzendaria:** Joxerra Bustillo Castrexana

**Koordinatzailea:** Irati Azkue Leunda

**Aholku eta erredakzio batzordea:** Joxerra Bustillo, Jose Mari Zendoia, Xabier Lekuona, Bego Zubia, Eugenio Etxebeste, Iñaki Egaña, Imanol Esnaola.

**Gaindegia Txostena 2011kako kolaboratzaileak:**

Rafa Diez Usabiaga, Mila Amurrio, Iñaki Beristain, Anjeles Iztueta, Joseba Barandiaran, Jon Leonardo, Jon Azua, Mikel Navarro, Cristina Berechet, Pedro Juan López, Nekane Jurado, Ander Aizpurua, Joseba Felix Tobar-Arbulu, Carlos Etxeberri, Xabier Aja, Aitor Renteria, Miren Ibañez, Arantxa Manterola, Juan Angel Monreal, Joseba Salvador, Iker Aranburu

**Kazetari lanak:** Estitxu Elduaen

**Itzulpenak:** Iñigo Azkue Leunda

**Lehenengo edizioa:** 2012ko ekaina

**Copyright:** GAINDEGIA- Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia

**Diseinua eta maketazioa:** Irati Azkue Leunda

**Lege Gordailua:** SS-983-2012

Gaindegia ez ditu bere egiten argitalpen honetan kolaboratzaileek adierazten dituzten iritziak



## AURKEZPEN OHARRA

Irakurle agurgarria, esku artean duzu 2011 urteari dagokion Gaindegia Txostena, Euskal Herriko ekonomia eta gizarteaz. Dagoeneko Euskal Herriaren garapenari eragiten dioten auzi sozio-ekonomiko nagusiez argitaratzen dugun 5. zenbakia da. Ohi dugun moduan, datuen zorrozatasuna arloetako adituen iritziarekin osatzen saiatu gara. Hori guztia ezohiko ariketa bat egiteko, alegia, errealtatea Euskal Herria aintzat hartzen dugunon begiekin aztertzeke.

Txostenaren ohiko irakurlea baldin bazara, argitalpenean atzerakada nabarmena igarriko diozu. Aurreko urtetan argitalpen honentzat finantzazioa lortu baldin badugu ere, aurten ezin izan dugu. Edonola ere, bere edukiak aurreko urtetan bezain mamitsuak gertatzea espero dugu. Txostenaren argitalpen taldea eta Gaindegia prest gaituzu bide honetan hobetzen jarraitzeko.

# AURKIBIDEA

## 1. Hitzaurrea

- RAFA DIEZ USABIAGA, Gaindegiako Kidea

## 2. Egiturako analisiak

- Eta, euroa lehertuko balitz? JOSEBA BARANDIARAN, Ekonomialaria.
- Gastu sozialen murrizketa: euskal ekonomiaren egoera. JON LEONARDO, Deustuko Unibertsitatea..
- Euskal enpresen internazionalizazioa. JON AZUA, E-novatinglab.
- Estrategia argiak eta gure produkzio-egituraren dibertsifikazioa. MIKEL NAVARRO, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua. Ikerlaria Deusto Unibertsitatea. Ekonomia katedraduna. CRISTINA BERECHET, Ekonomialaria, Think Tank Civismo erakundeko ikerketa-burua
- Kanpo merkataritza. PEDRO JUAN LÓPEZ, Bilboko Merkataritza Ganberako teknikaria Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle elkartua

## 3. Eztabaida foroa: zor subiranoa

- o NEKANE JURADO, Ekonomialaria
- o ANDER AIZPURUA, KUTXABANKEko Handikazko Negozio Sailaren Zuzendaria
- o JOSEBA FELIX TOBAR-ARBULU, EHuko Irakaslea
- o CARLOS ETXEBERRI, NOTICIAS DE GIPUZKOAKo Ekonomia Saileko Arduraduna

## 4. Prentsa dosierra

- o Fiskalitatea. XABIER AJA, DEIA.
- o Iparraldeko azpiegiturak. AITOR RENTERIA, BERRIA
- o Langabezia. MIREN IBAÑEZ, NOTICIAS DE ALAVA
- o Mugimendu sindikala Iparralden. ARANTXA MANTEROLA, GARA
- o Euskal enpresa atzerrira begira. JUAN ANGEL MONREAL, DIARIO DE NOTICIAS
- o Gizarte zerbitzuen jasagarritasuna. JOSEBA SALBADOR, GARA
- o Zorraren krisia. IKER ARANBURU, BERRIA

## 5. Euskal Herriko adierazle galeria 2011

- Galería nagusia: gizartea eta lurraldea, ekonomia, gizartea



# HITZAURREA

## URTE GOGOANGARRIA

RAFA DíEZ USABIAÇA, GAINDEGIAKO KIDE

Ezer esan aurretik, Gaindegia Txostena 2011 honetan ekarpen bat eginez parte hartzeko jasotako gonbidapena eskertu beharrean naiz. Gaindegiaaren egitasmoarekin izan dudana lotura eta konpromisoagatik atseginez heltzen diot lan honi.

Hori esanda, Euskal Herriaren historia garaikidea esangura bereziz markatuko duen urte horren eragina azpimarratu nahi dut, nahiz eta neuri dagokidanez espetxera itzularazi ninduen "El Dueso izenekoa". Milaka euskal herriarren oroimen mingostutako espetxea da, horien artean gure aitona Agustin Usabigarena.

Askapen prozesuan dagoen kolektibitate nazionala garen aldetik, 2011 urtea gure bilakaera baldintzatuko duten egiturako aldaketen urtea izan da. Aldaketa hauek euskal lurralde bakoitzak gure eskentoki politiko eta sozio-ekonomikoetara egin duten ibilbide konplexuekin bizikidetzatza autonomoa egin dute. Izaera desberdineko blokeotan hamarkada osoa eman ondoren, inflexio puntu baten aurrean gaude zalantzarik gabe, euskal nazioak nazioarteko unibertsoan hegaldia hasteko behar dituen indarrak pizteko inflexio puntuan.

Batetik, kapital finantzarioaren goseak askatutako krisialdi sistemikoaren zigorkadak eragin garrantzitsua izan dute gure ekoizpen ehunean, finantza tresnetan eta langileen eskubide soziala laboraletan. Espainiaren eremuan sortutako burbuila inmobiliarioak, ustelkeriak, xahuketak eta "pelotazoe" areagotu dituzte ondorio hauek.

Ondorioak langabeziaren hazkundean nabarmendu dira, errenten apaltzean, langileek osatzen duten gehiengo sozialari zuzendutako

zerbitzu publikoen murriztean, zenbait ekoizpen sektoreen geroarekiko zalantzan (automozioa, altzairugintza...), familia askoren kaleratzean, pobrezia eta bazterkeriaren hazkundean. Gure herriak nozitzen duen burujabetasun politiko-ekonomiko ezak eta instituzio desberdinek sustatutako neurri neoliberalak areagotu dituzten ondorioak.

Bestalde, ETak jarduera armatua behin betiko uztea eta hauteskunde emaitza garrantzitsuak lortu dituen izaera zabaleko eremu soberanista baten osaketak, zeharka, gure herriaren aldagai soziopolitiko guztietan eragin handia izan duten gertaerak dira. Ezker Abertzaleak egingutako gogoeta estrategikoan oinarrituz, eskentoki politikoan bizi izan ditugun funtsezko aldaketa hauek, gure herriaren askapen prozesu nazional, sozial eta kulturean oso modu arriskutsuan finkatuta zirudien blokeo iraunkorren hiru atakak gainditzea lortu dute.

Lehen atakak, desiratutako bake eta normalizazio demokratikoarena, gatazka maila jakin bat egonkortzea eragin zezakeen. Horrek berarekin leharke sufrimendu eta eskubide urraketa masiboa, bai eta konponbide demokratikoak gauzatzeko mugimendu eraginkorrak eragozteko ere.

Bigarren atakak, abertzaletasuna eta sektore konstituzionalisten arteko indar korrelazioari dagokiona, ezinbestean "beste aldagai ekonomiko, demografiko eta migratorioen zeharkako laguntzarekin", euskal proiektu nazionalaren ahultzera ginderramatzana, noiz eta Madril eta Parisek ezarritako marko instituzionalak agortzen ari diren garaian.

Eta hirugarren atakak, norbanakoen gizataldeen ekarpenari dagokiona "alegia, konpromisoa, militantzia", herri honen borroka sozial, ekonomiko eta kulturean beharrezkoa den motorra itotzeko mehatxu egiten zuena.

Aldi berri honetan, Gaindegiaaren eremu honetatik, eragile sozial, elkarte profesional, eremu

*"Funtsezkoa izango da eremu sozial soberanista-independientista zabaltzeko eta euskal nazioari bere dimentsio guztietan oinarria eman diezaion"*



unibertsitario zein enpresa eremuko pertsona eta kolektiboen ekarpen lana eremu itxi horiek gainditzeko moduan desblokeatu izanaren garrantzia azpimarratu nahi nuke, eta ondorioz, izaera estrategikoa duten analisi eta gogoeta handiagoen premiaren garrantzia ere bai, eremu sozio-ekonomiko osoari dagokionez.

Lurralde zatiketa; erakunde ekonomiko eta sozialen inertzia autonomoa; parte hartze sozial demokratikoaren ezarpenean tesi neoliberalen eragina; portaera sozial guztiak kutsatzen dituen birus indibidualista; horiek guztiak auzitan jarri behar ditugun eragile kaltegarriak dira nazio egitasmo baten urraskako garapenean.

Zabaldur berri den ziklo honetan, saihestu ezin den nazio aitortzaren eta erabakitze eskubidearen eztabaida eremuan, aldagai sozio-ekonomikoa, kulturalari loturik, nazio egitasmo baten zain gisa, funtsezkoa izango da eremu sozial soberanista-independientista zabaltzeko eta euskal nazioari bere dimentsio guztietan oinarria eman diezaion.

Burujabetasun politikoa eta ekonomikoaren aldarrikapenak egitasmo ekonomiko eta sozial bati uztarturik joan behar du. Espainolismoarekin eta jakobinismoaren epika distorsionatuari uztartutako sektore sozialetara modu naturalean eta objektiboki interesatuan hedatzeko egitasmo ekonomiko eta soziala izan behar du.

Egun euskal gizartean nagusitu den ustea da Madril eta Paris politika ekonomiko eta sozial propioak indarrean jartzeko zama direla. Alegia, ez gaituztela ordezkatzeko, ez gaituztela entzuten, ukazioa eta inposizioa besterik ez digutela eskaintzen. Beraz, osotasun bat eratu behar dugu soberanismo eta independentismoari edukia eta ontzia emateko. Independentzia zaletasun naturala sustatu behar da, egungo kideetasun sozialak nahikoa eraldatzeko moduan, European euskal estatua iristeko nahikoa izateraino. Agerikoa da, ordea, inoiz ezingo dela formulatu, are gutxiago eraiki programa-egitasmo soberanista bat irizpide neoliberaletan. Soberanismoa eta neoliberalismoa kontzeptu uztar-ezinak dira etorkizuneko nazio egitasmo bati begira gehiengo sozial kohezionatu bat eratzeke.

Honela bada, bidegurutze historiko honetan burujabetasunak-independentismoak bere go-

goeta eta proposamen sozio-ekonomikoari lehentasunezko arreta eskaini behar dio. Analisi, ikerketa eta eztabaida espazio eraginkorrak zabaldur behar dira eragile ekonomiko eta sozialen artean izaera estrategikoa duten gaietan dialektika desberdin baterako aukerak zabaldur egitasmo ekonomiko nazional baten egituratzean. "Merkatuan" kokatutako -enpresa, unibertsitate, instituzio- giza kapital abertzale garrantzitsuenen ekarpena txertatu behar da, egun ohiko dinamika organizatibo eta politikoinstituzionaletatik at dagoena.

Euskal Herriak ez du energia baliabiderik ohiko garapen ekonomikoa egiteko aukera eskain dezaketena. Gabezia horren ondoan, ordea, giza kapital eta kapital sozial trebatu, espezialdu eta berritzeko gai dena dugu. Berau da euskal eremuan egitasmo ekonomiko bati eusteko dagoen lehengai benetako eta objektibo bakarra. Lortzeko, ordea, ezinbestekoa da ahalegin eta tenkatze etengabekoa mehatxuka dugun inguru politiko eta ekonomiko baten aurrean, gure herri eta kulturak beti irensteko prest dagoena uniformizaziorako duen gose aseezinean.

Beraz, ezinbestekoa da osaketari dagokionez eremu pluralak finkatzea, eta transbertsalak bere eragin eremuari dagokionez, epe luzeko ikuspegiarekin nazio egitasmo ekonomiko bati ideiak, analisiak eta proposamenak emango dizkiotenak.

Helburu hori lortzeko komenigarria litzateke nazio elkarrizketa prozesu bat abian jartzea, zabala eta askotarikoa, baina bateratzailea euskal nazio egingarri, bideragarri, integratu eta solidarioaren alde apustu egingo duena euskal mosaiko sozialean.

Honela bada, tenore berriak tresna berriak behar ditu, freskoak, botere lehiak baldintzatuturik egon gabe, edo organizazio zein instituzioetako eguneroko jarduna fiskalizatzeko xederik gabe, kapital intelektual txertatuko dion mailegu etxe intelektual bat izango dena hedadura nazionaleko proiektu ekonomiko eta sozial batek behar dituen zumeak eskaintzeko.



# EGITURAKO ANALISIAK

## ETA EUROA LEHERTUKO BALITZ, ZER?

JOSEBA BARANDIARAN, EKONOMIALARIA

Puntu horri erantzuteko (2011ko Espainiako hauteskundeak) hausnarketa eguna baliatu dut. Galdera erraza; erantzunak baditu bere zailtasunak. Ekonomia fikzioa dakart gaur, 2011ko azaroak 19, larunbatarekin.

Teoria: herrialdeak, arrazionalak badira, euroan jarraituko dute urtez urte eta betiko, baldin eta soilik baldin ikusten badute etorkizun hobea dutela orohar Euroguneko kide gisa, eurotik aterata baino (aldaketak dakartzan kostu guztiak kontuan hartuta). Eta arrazonamendu horrek, noski, berdin balio du periferiako Grezia nahiz erdiguneko Alemaniarentzat.

Ezintasun legala: egungo legeek ez dute aurreikusten Euroguneko herrialde batek euroa uzteko modurik. Honek ez du esan nahi gertaera ezinezkoa denik, noski, legeak egin eta moldatu egin daitezkeelako. Baina, printzipioz, eurotik irteteko planak bide zaila luke ikuspuntu juridikotik. Manu militari (estatu kolpe bat) izan daiteke aukera bat, zergatik ez. Baina, gainontzean, labainkorra baino gehiago den bide baterantz joko luke eurotik irtetea erabakiko luken herrialdeak. Berez, inork eurotik irtetektan, akaso Alemania batek errazago egingo luke hori, periferiako herri batek baino. Beti ere, moneta berri bat jaulki beharko litzatekeelako eta Drakma berriak (DB), a priori, ez dirudi Deutsche Mark (DMB) berriaren itzalik izango lukeenik. DB diot baina,

*"Txanpon berri  
batek, nekez  
izango luke bi-  
hurgarritasunik  
lehen unean"*

Eurogunea azpitik uzteko, libera berria, pezeta berria edo lira berriak, berdintsu balioko lukete. Kontrara, Eurogunea gainetik uzteko moduan, DMB soilik legokeela iruditzen zait. Inor egotektan.

Zailtasun logistikoa:

txanpon eta billete berriak jaulkitzea, bere horretan, ez da lan makala. Milaka behar dira eta hainbat lekutara iritsi behar dute (moneta gune berri osora). Eta hortaz, nekez egin liteke ezkutuan. Diruaren definizioa hagitz sinplea da: onarpen orokorra duen ordainbidea. Onarpen hori lortzea, ordea, ez da hain erraza. Hortaz, populazio batek txanpon eta billetez aldatzea ez da lan makala, jendaurrean azaldu behar baita zeintzuk diren onarpen orokorra izango duten txanpon eta billete berriak, jendeak ezagutu eta onar ditzan, iruzurrak eta nahasteak eragozteko eta, konfiantzaren poderioz, onarpena hedatzeko. Horrek denbora eta publizitatea eskatzen du eta, esan bezala, jendeak aurrez jakin behar du dirua, moneta berria, izango duela. Txikikeria bat: makina txanponjaleak eta, oro har, diru fisikoa erabiltzen duten makina eta gailuak ere (bidesariak, garraio publikoaren ordainlekuak, etabar.) doitu beharra dago; ez merkea, ez laburra ez den prozesua.

Ezjakintasun totala: dirua baino beldurtiagorik ez dela esaten da. Kasu honetan, inork inoiz abiatu gabeko bidean sartuko litzateke DBaren jaulkitzailea. Ziurgabetasunaren eta egongaitzasunaren erditzea litzateke, esperimendu itxura baina ondorio errealeko bidean.

Banka zailtasuna: familia eta enpresek euroa eskutan dutela, gobernuak txanpon berri bat izango dutela jakinaraziko balie, txanponaren balio erlatiboaz kezka eragingo luke horrek. Egongaitzasuna. Euro bat, gaur, bat eta berbera da Eurogune osoan. Milaka kilometro egin litezke txanpon hori patrikan hartuta eta onarpena, balioa, ziurtatua dauka.

Txanpon berri batek, nekez izango luke bihurgarritasunik lehen unean (lan horretan hasi den Gobernuaren asmoez nor fida daiteke?) eta, hortaz, DBa baino, euro zaharrera (edo DMBa) joko lukete familia eta enpresek euren aurrezkiekin. Flight to quality edo "kalitatera jauzi" moduko bat espero liteke. DMBaren kasuan ere, ziurrenik, askok nahiago lukete karrikartzear legoken DMB hori, horretxan ondorioz hondoratzen ariko litzatekeen euroa bera baino. Hortaz, nork bere erosahalmena ziurtatzeko, banku gordailuak euro (edo DMB) bihurtzeko joera handia izango litzateke. Edo



egongaiztasun giroagatik, diru fisikoa hobetsiko luke askok. Hortaz, de facto, bankuen likidezia krisi bat eragingo luke horrek; ilarak bulegoetako ateetan edo, ezagunagoa izan liteken esamoldea erabiltzeagatik, Argentinak ezagun egin zuen "corralito" fenomeno. Euroguneko herrialde batean fenomeno hori emateak, Eurogune osora berau hedatzeko aukera ere piztuko luke, neure ustez. Gutxienera, banka nazionalizatu beharrean legoke akaso txanpon berriaren estatu jaulkitzailea.

Zor zailtasuna: Euroguneko herrialde batek euroa utzi eta txanpon berri bat jaulkitzeko izango luken pizgarria garbia da. Txanpona debalutzeko aukera berreskuratuta, lehiakortasuna irabaziko luke, banku zentral burujabe bat berreskuratuko luke eta, akaso, gerora hazkundera eta enplegua sortzeko aukera izanen. Baina kontuz, oso litekeena da herrialde hori, estatua, enpresak nahiz familiak eurotan (edo jada atzerrikoa zen beste txanpon batean) zorpetuta egotea. Ez euren artean bakarrik, noski, baizik eta hirugarren hartzekodunekin.

Hala, euren zorrak txanpon berriaren balio galerarekin biderkatuko lirateke. Alegia, de facto, ordainezin bihurtuko lirateke eta nazioarteko merkatal harremanetarako porrot egingo lukete, nahaste-borraste juridiko eta ekonomiko galanta eragiteaz batera. Finantza ikuspuntu batetik, bakartuta gelditzeko aukera asko leuzkake DB jaulkiko luken herrialdeak eta haren enpresek. Beti ere, beste txanpon batzuetan (dolarretan, berbarako edo euro zaharretan, estatutik at eta, lehen esandakoa-gatik, Euroguneko bankuetatik at bada hobe) ordaintzeko ahalmenik gorde ez balu behintzat. Bakartuta gelditze horrek, ohikoan inportatzen diren (oinarrizko nahiz luxuzko) ondasunen eskasia edota itzelezko garestitzea eragingo luke (petrolio, jakiak, argindarra... herrialdearen arabera); ziurrenik, baita estraperloa berpiztu ere, mugen ixte eta kanbio kontrolarekin batera.

Alegia, oso litekeena da estatuak herritar eta enpresen atzerriko dibisen kontrola lortzeko ahaleginak egitea (Mexikon hala egin zuten, 80 hamarkadan "mexdólares" famatuekin: dolarrak konfiskatu zitzaizkien halakorik zuten herritarrei eta, ordutik, atzerrian lo egiten du mexikar aberatsenen kontu korronteak). Finean, herrialdea seko pobretzen ariko litza-teke eta, une horretan, herrialdetik at (edo herrialdean baina atzerriko dibisetan edo urre-

tan) aberastasuna edukitzeak erosahalmena gordetzeko aukera emango luke. Hortaz, euroa lehertuko balitz, zer? Bada familia eta enpre-sak "corralito"ak harra-patuta, porrota jota edo jotzeaz eta banka nazionalizatu berri duen porrot egindako estatu baten eskutan leudeke, ziurrenik. DB jaulkitzeko makina es-kutan leukake, hori bai, estatu horrek. Hiperinflazio baterako suntsipen handiko arma, zeinak deprezi-azioa, inflazioa, sorgin gorpila martxan jarriko luken. Eta askoz gehiago ez, bertako herritar eta enpresen atzerriko aurrezkia etxeratze-ko tentazioa urrun legoke eta.

Bestalde, atzerriko inbertsioa erakartzeko aukera oso urriekin (epe laburrean bederen) eta estatuan bertan ekoitziak ez diren ondasunak lortzeko zailtasunekin (lehengai eta energia urritasuna kontuan izanda). Panorama, bistan da, hirugarren mundu gerraren parekoa ez dakit, baina gerra nuklearraren antzekoa begitantzen zait. Zehar kalteak eta kutsatzeak jorratzera iritsi gabe.

Zenbateko BPGaren jaitsiera edo langabezia eragingo luken horrek? Ez dakit, baina itzela. Atzeraezineko kalterik eragingo luke? Euro-paren eraikuntzan bai, nire ustez. 60 urte atzera egitea baino okerragoa baita 60 urtez eraikitakoa suntsitzea. Eta euskal herritar guztiek txanpon bera izan dugun epealdia ere amaituko luke, besteak beste, barne muga sendotuz.

Mariano Raxoik (oraindik hautagaiak) azaroak 18an esan omen zuen (eta kontrakorik bederen ez diot beste inongo hautagairi entzun, ezta M-15 edo bestelako mugimenduetako kideri ere), Espainiako ekonomiak euroan jarraitu nahi duela. Txanpon bakarra egitasmo politikoa dela eta atzeraezin izan behar duela (letra etzana neurea da); eta zalantzarikoa dela gaiaz bere alderdiak duen jarrera. Hexagonoan ere antzera. Frantziarentzat eurotik irteteko plana egin duen Jacques Sapir ekonomialariak

*"Finantza ikuspuntu batetik, bakartuta gelditzeko aukera asko leuzkake DB jaulkiko luken herrialdeak eta haren enpresek"*



ere, erakunde eta makroekonomiako aldaketa itzelak jartzen ditu planaren helburu. Baina ezkerretik Michel Husson eta konpainiak ere erantzun diote, beti ere aldaketa horiek eman beharko lirakeela lehenago, gerora eurotik irtetekotan ere. Alegia, aldaketa horiek emanez gero (soldaten pisua handitzea ekonomian, babes sozialeko sistemen sendotzea, kapitalen kontrol zorrotza, estatuen bankaren gaineko kontrola...) oso bestelako testuinguru batean geundeke.

Europa moldatzen errazagoa izango da, euroa baztertzeko baino. Europaren etsaiek (komertzial nahiz politikoei) irabaziko lukete gehien euroa lehertuko balitz. Nolanahi den eta, amaitze aldera, gogorarazi ditzagun moneta gune bateratu baten egokitasunerako euroa jaulki aurretik ere ezagutzen genituen baldintzak: 1) integrazio komertzial handiko ekonomien artekoa izatea, ekonomia irekiak izatea; 2) shock ekonomikoen eragina simetrikoa izatea oro har, hau da, gutxi izatea estatu bati kalte eta besteari mesede egiten dioten shock edo gertaerak. Horretarako, merkataritza intrasektoriala izan behar dute nagusiki (zuk Adidas arropa saltzen didazu niri eta nik zuri Astore; edo zuk niri Alstom trenak eta nik zuri CAF trenak), intersektoriala baino (zuk makinak saltzen dizkidazu eta nik zuri turismoa, frutak edo ardoa); 3) lanaren mugikortasuna moneta batasuneko lurraldean (Andaluzian %31ko langabezia dute, Alemanian inoizko enplegatu maila altuena lortu dutenean...); 4) federalismo fiskala (!).

Ez dadila lehertu.



## EUSKAL EKONOMIAREN EGOERA

JON LEONARDO, DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Krisi-egoera bihurri eta nahasia bizi dugu, ekonomia kapitalista berreratzen ari dena. Hego Euskal Herriaren egoera ekonomikoari erreparatzen badiogu, adierazi behar da Estatuan baino hobeago egin diola aurre, adierazle guztien arabera, krisiaren oldarrari. Hala ere, joera ekonomiko orokorraren eraginak pairatu ditu.

### Desberdintasunak eta gizarte-alorreko murrizketak egoera berrian

-Gizarte-alorreko desberdintasunak gizarte-politikaren murrizketen atzean

Ez ditugu eskura Hego Euskal Herriko gizarte-desberdintasunaren mailari buruzko datuak, baina beldur handirik gabe esan dezakegu azken urteetan era lotsagarrian handitu dela gizarte-alorreko desberdintasuna, nahiz eta aurreko urteak loraldi ekonomikokoak izan diren. Horiek horrela, estatu espainiarrari erreparatzen badiogu, ikusten dugu gizarte-maila handienak, gizarte osoaren %10ak, 38.000 euroko diru-sarrerak izan zituela batez beste 2008. urtean, hau da, diru gutxien irabazten duen populazioaren %10aren ia 12 aldiz gehiago.

Gizarte-alorreko desberdintasuna dugu testuinguru, baina gizarte-alorrean egiten diren murrizketen politikak justifikatzeko, agintariekin diote gastuak kontrolatu behar direla defizit publikoa murrizteko, eta hori guztia egin behar dela politika fiskalen eskema orokorra aldatu gabe edo ahalik eta gutxien aldatuz. Horren arrazoia da aldaketa orok larriki kalte ditza-keela politika ekonomikoak, eta kalte horiek itzelezko eragozpena izan daitezkeela ekonomia berpizteko eta krisialditik irteteko.

Ikuspegi politikoa hartuta, eta erreformek Hego Euskal Herrian izango luketen eragina aztertuta, ikusten da egungo egitura autonomikoa aldatu nahi dutela proposatutako erreformek, hau da, LOAPA lege organikoak bere garaian

egin zuena egin nahi da gaur egun: Estatua zentralizatzeko prozesu bat abiatzea eta Konstituzioan adostutakoa gainditzea da helburua. Krisiaren inguruko arrazoibide horren asmoa da lan- eta gizarte-alorreko zenbait eskubide eta eskumen hutsaltzea; hala ere, ezin da ukatu herrialde historikoen zorpetze-maila errealdaren azterketa sakon eta zorrotz bat egitea komeni dela.

- Gizarte-alorreko murrizketak al dira krisialditik irteteko bidea?

Espainiar estatuan, murrizketak hainbat erreformaren bidez egin dira 2010. urtetik aurrera, urte horretan izenpetu baitzuten Estatuako gobernuak, patronalak eta sindikatuek Akordio Sozial eta Ekonomikoa. Agiri horren bidez, "elkarriketa sozialaren" oinarriak ezarri nahi izan ziren, bi xede lortzeko: defizit publikoa kontrolatzeko batetik, eta, bestetik, ekonomia suspertzeko premia biziari erantzuteko. Urte horretan onartu zen neurri-multzoak nabarmen aldatu ditu ongizate-estatuaren joko-arauak. Gobernu sozialistak, beraz, Akordio Sozial eta Ekonomikoa adostu zuen sindikatu eta eragile ekonomiko eta sozial jakin batzuekin, eta agiri horren bidez, oinarrian, esparru-akordio edo -hitzarmen bat ezarri zen, zenbait gai lantzeko:

- a) Pentsio-sistemaren erreforma
- b) Negoziazio kolektiborako esparru berri bat ezartzea, lan-faktorearen kostua merkatzeko
- c) Gizarte-laguntzako programetarako sarbidea mugatzea

### Nora goaz? Hemendik aurrera gerta daitezkeen egoerak

Eusko Jaurlaritzak inkesta bat egin berri du euskal herritarren iritziz orokorren berri izateko, eta bertan harridura adierazten da gizarteak azaltzen duen zatiketarekin. Maiatzean aurkeztutako soziometroak adierazi zuen garai horretan galdekatutako herritarren %32 ados zegoela Eusko Jaurlaritzak proposatutako neurriekin, beste %32k uste zuen neurriak ez zirela beharrezko, eta gainerako %36ak zioen ez zuela neurrien berririk edo ez zuela haiei buruzko iritzirik eman nahi. Azken azterketa

2011ko uztailean egin da eta azaroan aurkeztu. Bertan esaten da euskal herritarren %56 ados dagoela Eusko Jaurlaritzak proposatu dituen neurriekin, krisia gastu publikoaren murrizketarekin borrokatu eta zerbitzu publikoen kalitateari eusteko. Itxura batean, ideia hau, pixkanaka, lekua hartzen ari da herritarren kontzientzian: gastu sozialak murriztea da krisitik irteteko "ordaindu behar den prezioa". Badirudi, nolabait esateko, ezinbestean jasan beharreko patua edo saihestu ezineko kaltea dela herritarren ustez. Horiek horrela, kontrapisu ideologiko eta sozialik ez denez, berrindartzen ari da egungo egoera nabarmen aldatuko luketen neurriak hartzearen aldeko presioa.

Alde horretatik, zenbait jardun-ildo nabarmentzen ari dira azkenaldian, Hego Euskal Herriko egoera baldintzatu dezaketenak hemendik aurrera:

- Fiskalitateari buruzko debatea da lehen ildo. Fiskalitatearen harmonizazioaren nolakotasunari eta erreforma handi baten premiari buruz hitz egiten da alde batetik, orain baino diru gehiago bildu nahi baitu botere exekutiboak, eta, bestetik, itun berri baten premia da eztabaidagai, dirua birbanatzeko sistema-berri baten oinarriak zehazteko. Agerikoa da Europar Batasuneko erakundeek ikuskatuko dituztela gobernuek bete beharrekoak izango dituzten zorpetze-mugak; beraz, administrazioen jarduera-eremuak baldintza edo muga nabarmen bat izango du, diru-sarrerak biltzeko premia izango baitute beti bezala, baina hemendik aurrera ezingo baitute beren zorpetze-maila handitu, edo, handitzeko aukera izatekotan, oso modu apal eta kontrolatuan egin beharko baitute, arautzen diren mugak betetzeko.

Eskura dauden datuen arabera, fiskalitatea %33aren ingurukoa da, batez beste, Euskal Autonomia Erkidegoan eta %32,5ekoa Nafarroan. Batez bestekoa %39,8koa da 27 herrialdeko Europar Batasunean, eta %48tik gertu dago Suedian eta Danimarkan.

Nire ustez, premiazkoa eta presazkoa da eredu fiskal harmonizatu eta koherente bat asmatzea, ahulenen aldeko diskriminazio positiboa egingo duena, hori baita

*"Premiazkoa eta presazkoa  
da eredu fiskal harmonizatu  
eta koherente bat asmatzea,  
ahulenen aldeko  
diskriminazio positiboa  
egingo duena, hori baita  
oreka lortzeko bidea"*

oreka lortzeko bidea. Ildo horretatik, beharrezkoak diren gizarte-murrizketak egin eta, aldi berean, zerbitzu publikoen kalitateari eusteko bide bakarra da, nire ustez, fiskalitateari buruzko debate kontzeptual bat abiatzea, erabakitzeko zer ordaindu nahi dugun zergen bidez eta zer ez. Esate baterako, zergen bidez ordaindu behar al da, zahartzen ari den gizarte batean, gizarte-baliabideen sistemaren zati bat? Bai ala ez? Zergatik ez da zerga-sistema moldatzen zahartzeak ekarriko dituen gizarte-beharrizanak asetzeko behar den funtsa osatzeko? Galdera eta gai horiek jarri behar dira, beste batzuekin batera, mahai gainean.

- Administrazio Publikoaren tamaina egokitzeko premiari buruzko eztabaida da bigarren ildo. Ongizate-estatua menderatzeko asmoak bultzatuta, pribatizazioak egitearen aldeko presioa egiten dute merkatuek, eta, alde horretatik, mahai gainean jarri diren proposamen askoren asmoa da baliabideen kudeaketa publikoari "pastel-zati bat" kentzea. Pentsio-funtsak, osasun-arloko baliabideak edo hezkuntza-zerbitzuak dira, besteak beste, pastel-zati horiek.

Ez da ahaztu behar, halere, azken hamarkadatan sortu diren desoreka demografiko, ekonomiko eta sozialek erantzun berriak behar dituztela, baina, orain artean behintzat, desorekak handitzen ari dira, ondorio ekonomiko, politiko eta sozial larriak eraginez.

Hego Euskal Herriari erreparatzen badiogu, komeni da erakunde publikoek berrikustea gizarte-zerbitzuetako, laguntzen politikako eta bestelako zer-

bitzuak hornitzeko modua. Orain arte Jaurlearitzak arautu eta antolatu izan ditu gizarte-politikak eta toki-administrazioek kudeatu eta finantzatu dituzte; ondorioz, nolabaiteko nahasmendua sortu da, lurraldetik lurraldera aldaketak haute-maten baitira laguntza-sisteman bederen, eta kontuan izan behar da osasun-arloan, esaterako, ez dela halakorik gertatzen. Ez du hankarik ez bururik erakundeen alde-tik horrelako aldeak izatea hain sentikorrak diren bi gai-alor horietan. Hori azpimarratu nahi dut atal honetan.

- Pribatizazioen aldeko presioak eta sistema bideragarrien bilaketak osatzen dute hirugarren ildoak. Lehen adierazi dudana moduan, presio oso handia egiten da pribatizazioen alde. Sistema osoak egiten du presio pentsio-funts pribatuak indartu eta, ondorioz, finantza-erakundeak mesedetzeko, mediku-aseguru pribatuen garapena sustatzeko, eta antzeko neurriak bultzatzeko. Pentsatzekoa da gai horiei buruzko eztabaidak indartu egingo direla hemendik aurrera, beldurraren logikan oinarritzen diren arrazoiak baliatuz: sobera ezagunak dira pentsio-sistema defizitarioa da, ezingo du 2020. urtetik aurrera iraun, eta antzeko aldarriak. Komunikabideak eta zenbait erakunde aspaldi ari dira horrelako kontsignak zabaltzen, ez da entzuten ditugun lehen aldia. Horrenbestez, ez da harritzekoa euskal gizarteak Soziometroan eman dituen erantzunetan etsipen-tonu bat sumatzea.

- Ongizate-estatuaren inguruan itun edo hitzarmen politikoak adostu beharraz dihardu laugarren ildoak. Hego Euskal Herrian, ETA protagonista izan duen gatazka politikoaren indarkeriazko adierazpenarekiko normalizazio-prozesu bat bizi dugu. Egoera-diagnostikoaren erdira ekarri behar da ongizate-estatuaren gaia, gizarte integratzaile bat eraikitzen hasteko, herri-ikuspegia hartuta.

Zinez uste dut elkartasunarena izango dela, hemendik aurrera, eztabaida politiko nagusia, eta, horren harian, indar politikoek haienera eraman nahi izango dutela ongizate-estatuari buruzko diskurtsoa. Krisi ekonomikoaren eraginez, gizarte-mailen arteko elkartasunaren ara-

zoari erreparatuko zaio koordinatu politiko berrietan, eta, euskal herritarren aukera edo hautu politikoak zehazteko, erabakigarriak izango dira alderdi politikoek hartzen duten posizionamendua ongizate-estatuarekiko, haren defentsarekiko eta harekin lotuta dauden gaiekiko.

Jakina da 80ko hamarkadako krisiaren hasieran Pobreziaren aurkako Legea onartu zela Euskal Autonomia Erkidegoan. Mugarri hori eredugarria izan zen beste erkidego askorentzat, jardun-modu hori bereganatu eta zabaldu baitzuten. Horrek lidergo moral moduko bat eta zilegitasun plus bat eman zion, nolabait, euskal sistemari. Uste dut, egoera zail honetan, gizarte-hitzarmena berradostu behar dela, errealitate ekonomiko eta sozialaren ikuspegi egiazko eta egoki bat hartuz. Euskadik abantaila handi bat du zeregin horri ekiteko, gizarte-kohesio handia baitu, euskal gizartearen maila arteko desberdintasunak gure inguruko beste gizarte batzuetakoak baino txikiagoak direlako, besteak beste.



## EUSKAL ENPRESEN INTERNAZIONALIZAZIOA


### Internazionalizazioaren paradoxa mundu GLOKALIZATU batean.

JON AZUA, ENOVATINGLAB

Euskal ekonomiaren kanpo-merkataritzako jarduerak izan duen bilakaeraren laburpena ikus daiteke hurrengo tauletan.

lana egiten duelako) esportazioen herenak Frantzia eta Alemania izan dutela helmuga. Batez bestekotik gorako igoera, %23koa, izan dute herrialde horietara egindako esportazioek, baina apur bat apaldu da igoera urteko lehen hiru hilekoan izandako igoeraren aldean (%31,2koa izan zen orduan).

Euskal Autonomia Erkidegoak 2011n izan dituen kanpo-inbertsioei erreparatzeko badiogu, ikusten dugu 9 aldiz handitu direla 2010eko kopuruak. Nabarmentzekoa da manufakturen industriak duen pisua, inbertsio guztien %55



(1) Beste gai-alor ugaritan gertatzen den moduan, EUSKADI zatitua eta konplexua ageri zaigu ikuspegi administratibo eta politikotik, eta horrek zaildu egiten du Euskal Herri osoa bere osotasunean aztertzea. Lan honetan, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoa – Euskadi aztertzerako mugatuko gara, nahiz eta Nafarroari eta Ipar Euskal Herriari buruzko zenbait aipamen egingo ditugun.

Nabarmentzekoa da, albiste ona den aldetik (baina, aldi berean, txarra ere bai, traktore-

bereganatu baitu. Inbertsioen ia erdia Amerikako Estatu Batuetatik etorri da, eta Herbehereak dira nabarmentzeko bigarren herrialdea.

Turismoa da argazkiaren beste irudi garrantzitsuetako bat, etxean "esportatzeko" modu bat baita. Inoizko marka guztiak hautsiko ditu EAEk 2011n, 2 milioi turista baino gehiago hartuko baititu.

Eusko Ganberak kaleratu dituen abagune-

**Evolución del comercio exterior de la C.A. de Euskadi. Primer trimestre de 2010-2011. Miles de euros**

|                                   | EXPORTACIONES    |                   |             | IMPORTACIONES    |                  |             |
|-----------------------------------|------------------|-------------------|-------------|------------------|------------------|-------------|
|                                   | Enero-Junio      |                   |             | Enero-Junio      |                  |             |
|                                   | 2010             | 2011              | Δ %         | 2010             | 2011             | Δ %         |
| <b>C.A. DE EUSKADI</b>            |                  |                   |             |                  |                  |             |
| <b>TOTAL</b>                      | <b>8.702.307</b> | <b>10.011.012</b> | <b>15,0</b> | <b>7.474.723</b> | <b>9.013.587</b> | <b>20,6</b> |
| PRODUCTOS MINERALES Y ENERGÉTICOS | 595.307          | 917.618           | 54,1        | 2.546.808        | 3.333.514        | 30,9        |
| PRODUCTOS NO ENERGÉTICOS          | 8.107.001        | 9.093.394         | 12,2        | 4.927.915        | 5.680.073        | 15,3        |
| <b>ARABA / ÁLAVA</b>              |                  |                   |             |                  |                  |             |
| <b>TOTAL</b>                      | <b>2.089.706</b> | <b>2.645.517</b>  | <b>26,6</b> | <b>1.112.396</b> | <b>1.261.614</b> | <b>13,4</b> |
| PRODUCTOS MINERALES Y ENERGÉTICOS | 3.338            | 3.202             | -4,1        | 11.948           | 16.072           | 34,5        |
| PRODUCTOS NO ENERGÉTICOS          | 2.086.368        | 2.642.315         | 26,6        | 1.100.447        | 1.245.542        | 13,2        |
| <b>BIZKAIA</b>                    |                  |                   |             |                  |                  |             |
| <b>TOTAL</b>                      | <b>3.888.489</b> | <b>4.183.610</b>  | <b>7,6</b>  | <b>4.757.769</b> | <b>5.989.862</b> | <b>25,9</b> |
| PRODUCTOS MINERALES Y ENERGÉTICOS | 572.839          | 894.825           | 56,2        | 2.428.874        | 3.257.919        | 34,1        |
| PRODUCTOS NO ENERGÉTICOS          | 3.315.650        | 3.288.785         | -0,8        | 2.328.895        | 2.731.942        | 17,3        |
| <b>GIPUZKOA</b>                   |                  |                   |             |                  |                  |             |
| <b>TOTAL</b>                      | <b>2.724.113</b> | <b>3.181.885</b>  | <b>16,8</b> | <b>1.604.559</b> | <b>1.762.111</b> | <b>9,8</b>  |
| PRODUCTOS MINERALES Y ENERGÉTICOS | 19.130           | 19.591            | 2,4         | 105.986          | 59.522           | -43,8       |
| PRODUCTOS NO ENERGÉTICOS          | 2.704.983        | 3.162.293         | 16,9        | 1.498.573        | 1.702.589        | 13,6        |

Fuente: EUSTAT. ECOMEX. Estadísticas de Comercio Exterior de la C.A. de Euskadi

txostenek esaten digute esportazioak izan direla euskal ekonomiaren hazkundearen oinarri, baina, era berean, mantsotze-zantzuak hautematen direla esaten digute.

Euskadik 10.011 milioi euro esportatu zituen 2011ko lehen sei hilekoan (2010eko lehen sei hilekoan baino %15 gehiago). Inportazioak, berriz, 9.013 milioi eurokoak izan ziren, %20,6 gehiago. Horrenbestez, kanpo-saldoa positiboa da, 1.000 milioi euro ingurukoa, iazkoa baino %7,7 apalagoa den arren.

Sektore eta merkatuen arabera aztertzen baditugu zenbateko horiek, ikusten dugu salmentak igo ditugula gure ekonomiaren jarduera-eremu nagusietan:

Baina argazki hotz eta, neurri batean, konbentzional horretara mugatu gabe, komeni da eragile nagusien portaera sakontasun handiagoz aztertzea. Agerikoa da Euskadik 2011n erakusten duen argazkia adierazgarria eta, bere inguruko lurraldeekin alderatuta, nabarmena ere badela, estatistiken buruan ageri baita Espainiako merkatuan (beste behin ere, zoritxarrez, irudia partziala da nahitaez, ez baitugu Ipar Euskal Herriko informazio fidagarriarik eta Nafarroari buruzkoak ere partzialak baitira; gainera, azpimarratzekoak dira Ipar – Hego ekonomiek errealitate dual argi bat erakusten digutela mugaren bi aldeetan, eta “ez-harreman” modu berezi bat sortu dela Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean, “esparru ekonomiko natural” baten bidean normalizatu beharko lukeena, ETaren

“jarduera armatu-aren etenaren” ondorengo gertakari politikoen harian). Honako elementu hauek uzten dizkigu agerian Estatistiken bidezko azterketa honek:

1) Lidergo-posizio bat ikusten da gure ekonomiaren irekitasunean,

| <b>Sektorea</b>                | <b>Kanpo-salmenten igoera %</b> |
|--------------------------------|---------------------------------|
| Metal komunak eta Manufakturak | %23,4                           |
| Makineria eta aparatuak        | %17,7                           |
| Garraio-materiala              | %3,9                            |
| Egurra eta altzariak           | %52,3                           |
| Janariak eta edariak           | %17,5                           |

bai kanpoan dugun presentziari dagokionez, bai Euskadin jarduera nabarmengarriak dituzten kanpoko pertsona, enpresa, erakunde eta gobernuekiko elkarrekintzari dagokionez. Berriaz, hauek nabarmentzen dira:

A) Presentzia gero eta handi eta nabarmenagoa dugu mendebaldean gailendu izan diren ekonomia aurreratueta, hau da, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batuan, eta aurrera egiten ari gara Ameriketako Estatu Batuetan. Denboran emandako errealitate bat denez, gure indargune bereizgarri bat izatera iritsi da, "lehen mailako herrialdeetan" lehiatzen ikasi baitugu, merkatu oso lehiakorretan, batez bestekotik gorako manufaktura eta teknologia erabiliz, kalitate-arau zorrotzak betez eta konpromiso handiak hartuz ingurumenarekin. Lan horrek guztiak onura handiak eta lehiarako abantailak eman dizkie gure enpresei.

B) Ikusten da, horrekin batera, beren jarduera gorabideko herrialdeetarako dibertsifikatzeko joera erakutsi dutela gure enpresek, nabarmentzeko moduko ahaleginak egin baitituzte haietara zabaltzeko, nahiz eta aldeak izan diren herrialdearen eta merkatuaren arabera. Ahalegin hori oso mesedegarria izan zaie azken hiru urte hauetako krisian, herrialde horietan eta merkatu errealekin ezarri diren euskal enpresek aukera izan baitute Espainiako merkatuak ezagutu duen geldialdiari, eta, kasu batzuetan, desagerpenari ere aurre egiteko (eta ez da ahaztu behar ez dela, epe motzean, susperraldi argirik aurreikusten Espainian). Euskal enpresen kanpo-ezarpenen kokapenari dagokionez, nabarmentzekoak dira Latinoamerika, Txina — 100 enpresak baino gehiagok dituzten ezarpen finkoak herrialde horretan —, eta haien atzetik, nahiko urrun, India. Horiez gainera, mugimenduren bat abiarazi da SESB ohira, Pertiako Golkoko herrialdeetara (GCC), Iranera eta Turkiara, eta etorkizunerako aurreikuspen gisa ageri da Afrika, baina oraindik oso urrun.

2) Gure "multinazional berriek" aurrera egiten dute ingurune konplexutan, honako faktore hauen ondoriozko zailtasunei aurre eginez:

a. Baliabide gutxi dituzte abenturari aurre

egiteko (finantzazio mugatu eta garestia dute eskura, ez dituzte tokian tokiko kulturak eta merkatuak ezagutzen, eta kualifikazio handiko pertsona gutxi daude internazionalizazioaren esparruan lan egiteko).

b. Gure produktuak "eskuratzen" dituzten herrialde eta gobernuak gero eta eskakizun handiagoak egiten dituzte, etenik gabeko inbertsioak egiteko eskatzen baitute, tokian-tokian presentzia izatea eta xede edo helmugako herrialdean integratzea; hala, produkzio-instalazioen "deslokalizazio" aurreratuak egin beharrean izaten dira gure enpresak, balio-kateak garatu behar izaten dituzte tokian-tokian, zuzendaritza-taldeak integratu toki bakoitzean eta konpromisoak hartu herrialdeen garapenarekin.

c. Gure enpresen antolamendu-kulturak ez du urrutiko kudeaketak egiteko behar den garapenik, hau da, zailtasunak dituzte balio-katea eremu geografiko anitzetara egokitze. Izan ere, askotariko hitzarmenak egiteko eta harremanetarako eta gestiorako eredu ugari baliatzeko eskatzen zaie, eta gero eta handiagoa da "Estatuko merkataritzaren" eragina, gobernu-gobernu eta gobernu-enpresa elkarreaginez baliatuz gauzatzen dena.

d. Tokiko hitzarmen eta akordio anitzak kudeatzeko modu berriak behar dira, aukera emango dutenak modu lehiakor batean banatzeko eginkizunak, zereginak, baliabideak eta etekinak, bai jatorrian, bai xede edo helmugako lekuetan. Enpresa- eta antolamendu-modu berriak asmatu behar dira, beraz.

3) Horrekin batera, txanponaren bi aldeak erakusten dizkigu internazionalizazioak: gu kanpora irteten gara bai, baina kanpotik ere etortzen zaizkigu Euskadira, gure enpresek kanpoan lortu nahi dituztenen antzeko helbuerekin etorri ere, eta haiek hartu beharrean gaude. Neurri batean, mundura zabaltzeko asmoaren gauzapena da nazioartekotze edo internazionalizazioa, baina, batik bat, bi noranzko dituen jokoa da (alde anitzekoa, hobeto esanda), guztiok barne hartzen gaituena.

4) Erosketa publikoa da faktore kritikoen





zerrendako beste elementu bat. Ildo horretatik, etxean liderra zarela erakustea da kanpora joateko aurkezpen-gutun onena. Hori lortzeko bide normala izaten da gure herrian erakustea ondasunak eta zerbitzuak eskaintzeko indarra eta gaitasuna daukagula. Baina oso zaila da merkatu berriak "konkistatzea", baldin eta garatzeko dugun oinarrizko eremuan ez badugu estrategia osoen babes edo laguntzarik izaten. Horren harian, arrazoizkoa dirudi tokian tokiko enpresek beren gobernuen laguntza eskatzea kanpora jo behar duten garaian.

5) Enpresen internazionalizazio-jardun zehatzaren azterketa tradizionalaz gain, aintzat hartzekoak dira honako eremu nabarmen hauek:

a. Turismoak, irteerako eta harrerako alderdietan, inoizko zenbaki onenak erakusten ari zaizkigu, eta horrek eragin nabarmena du gure herrian eta gure ekonomiaren internazionalizazioan. Turismoak ekarpen ekonomiko onuragarria egiten digu, eta eragin nabarmena du kultura-moduetan, munduan erreferentziazkoak diren beste errealtate batzuk ezagutzeko eta geure izatearen balioa handitzeko aukera ematen digu, lankidetzaren sare potentzialak zabaltzen laguntzen du, eta balio handiko onura neurtezinak edo zenbatezinak dakartzkigu. Azpimarratu beharrekoa da zer-nolako garrantzi handia hartu duten kongresuak, kultura-ekitaldiak eta feriak antolatzeko jarduerak, nazioarteko presentzia gero eta handiagoa duten aldetik (hor ikusten da BEC, Kursaal, Euskalduna azpiegiturek ekarri diguten onura).

Lehen adierazi ditugun onura neurtezin edo zenbatezin horiek aztertu eta zehazteko ahalegina gero eta handiagoa da, jakiteko zer-nolako aberastasuna sortzen duten, baina agerikoa da, horien artean, nabarmenezkoak direla lehen mailako saio eta ekitaldiak (operak, erakusketa artistikoak), kirol-taldeak nazioarteko jarduna (Athletic, Euskaltel, Baskonia, Bilbao-Basket Europako txapelketetan jokatzeko dutenean) eta jaiak (San Ferminak), gure internazionalizazioaren mesederako diren aldetik.

b. Oraingoz eragin mugatuko lana den arren, lanean ari gara ikerketaren,

hezkuntzaren eta irakaskuntzaren esparruetan, hainbat ekimen aurrera eramateko; hala nola, nazioarteko ikertzaileak trebatzen tokiko proiektuetan lan egin dezaten, lankidetzako ikerketahitzarmenak izenpetzen bikaintasunaren alorreko pertsona eta erakundeekin, nazioartean erreferentziazkoak diren argitalpenak kaleratzen —bereziki ingelesez egindakoak—, nazioarteko programa akademikoak lantzen, eta beste hainbat ekimen gauzatzen. Horien artean, nabarmenezkoak dira Lehiakortasunerako Euskal Institutua – ORKESTRA, Donostia International Physics Center, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC) eta korporazio teknologikoak, Unibertsitate Programak eta Institutuak, Ikerbasque, etab.

c. Osasun-zientziak ere nabarmenezkoak dira, internazionalizatu diren enpresak ditugulako arlo horretan, osasun-arloko profesionalekin elkarrekin pertsonalak egiten direlako, nazioarteko hitzarmenak egin direlako, eta erreferentziazko zentroak ditugulako, kanporako gero eta arreta handiagoa dutenak. Nafarroan, eta, bereziki, Iruñean, Klinika Unibertsitarioa, Bio-Zientzietako ekimenak eta Unibertsitatea ditugu gure internazionalizazio-ekimenaren ikur nagusi.

"Internazionalizazioak" gure ekonomian duen leku aipagarria ikusita, galdera hau egitea dagokigu: estrategia arrakastatsu honek noranzko egokia al darama?

## KONKLUSIOAK. EUSKAL HERRIKO ENPRESEN ERRONKAK ETA DESAFIOAK INTERNAZIONALIZAZIOAREN ALORREAN

2011 urte ona izan da Euskadirentzat internazionalizazioaren alorrean; gainera, ETA-k "jarduera armatua uzteak" indartu egin du gure herri-marka. Bidea, ordea, luzea, konplexua eta amaierarik gabea da.

Paradoxa bat dakarkigu internazionalizazioak, baina horretaz jabetzea baliagarria izan daiteke estrategia berriak zehazteko (enpresakoak, publikoak, hezkuntzakoak eta pertsonalak), ongizatearen euskadi lehiakor baten alde.



Horrenbestez, gure diskurtsoa doitu beharrean gaude: gehiago eta hobeto irten behar dugu kanpora (hori nahi dugu eta horretan saiatzen gara), hazkuntza iraunkor baten alde eta garapen etengabea lantzeko aukera berrien bila. Hori guztia egin nahi dugu "toki anitzeko edo sortu beharrekoa den kontzeptu berriren bateko" EUSKAL enpresak izanik, baina etxean dugun lekua bertakoak ez diren multinazionalen esku utzi gabe. Gure gobernuei (etxean) eskatzen eta exijitzen diegu erosketa eta kontratazio publikoetarako sarbidea "erraz" diezaguten, lehiakorrak izateko bidean egin beharreko hobekuntzen eta berrikuntzen traktoreak izan daitezen, baina, era berean, gure helburu edo jomugako herrialdeetan eragozpen eta jarduera "protektionista" oro desagertzea eskatzen dugu, tokian-tokian izan ditzakegun lehiatzaileak ez mesedetzeko. Prozesuaren egiazko protagonistak izan nahi dugu, gure esku izan nahi ditugu internazionalizazioaren alorrean egiten ditugun hitzarmen eta akordioen zuzendaritza eta kontrola, eta inbertsioetako dibidenduak gurekin bueltatzea, etxera. Nahikunde logikoak dira horiek, gure internazionalizazio-politikaren gidari izan behar dutenak, baina ez dugu ahaztu behar ezinbestean topo egingo dutela harrerako herrialdeetako bidaideen xede edo helburu kontrajarriekin. Beraz, argi dago porrot egingo dutela "neuk irabazi eta besteak galdu" dikotomian oinarritzen diren estrategiek, "irabazi-irabazi" bikoa sortzeko gaitasuna baita arrakastaren gakoa.

Paradoxa interesgarri eta pizgarria, inondik ere. Erronka erakargarria.

Adierazi ditugun onurak lortzean datza euskal ekonomiaren erronka, baina, betiere, gure sarea eta Herria indartuz. Euskadi da erronka. Kontua ez da "haize globalizatzaileen" mende izatea edo "gure bizitzak internazionalizatzea". Finean, gure uste sendoa izan behar du mundua, egiaz, GLOKALA dela sinestea, eta, aldi berean, jabetzea gure enpresa eta pertsonen egoera naturala, funtsean, bertako kide izatearen sena eta nortasun edo identitate propio bat izatea dela, hau da, gure tokiko efektuan datzala, eta ez, nagusiki, arimarik gabeko agertoki global baten eraginean.

Horrenbestez, balioaren BATERAKO SORKUNTZAZ hitz egiten ari gara, etxean ondorio onuragarri eta garbiak izango dituenak. "Jatorrian euskal enpresa" direnak egindako

ekarpenek eta Euskadin jarduten, bizitzen eta lan egiten duten enpresa eta pertsona guztiek egindako ekarpenek lortu behar dute hori, gure Herriari balioa erantsiz eta lehiakortasuneko eta ongizateko gure eremu propioa eraikiz.

## ESTRATEGIA ARGIAK ETA GURE PRODUKZIO-EGITURAREN DIBERTSIFIKAZIOA

MIKEL NAVARRO ARANTZEGI  
ORKESTRA-LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL  
INSTITUTUA.  
IKERLARIA DEUSTO UNIBERTSITATEA.  
EKONOMIA KATEDRADUNA

Herri aurreratu guztietan produkzio-egitura hobetuz eta eraldatuz doa etengabe. Produktu eta jarduera berriak tai gabe ari dira agertzen. Eraldaketa horrek ba al du noranzkorik? Jeneralean, erregio aurreratuetan dibertsifikazio espezializatu baterantz doa. Luzaro ekonomialarien artean eztabaida bat egon zen: batzuk lurraldeak espezializatzearen alde zeuden (adib. Marshall); beste batzuek, berriz, dibertsifikazioa hobesten zuten (adib. Jacobs). Berrikitan, aldiz, beste planteamendu berri bat agertu da: lurraldeek dibertsifikazioa behar dute (horrela, sektore batzuen ideiek eta jakintzak beste sektoreetako berrikuntza erna dezaten); baina ernalketa gurutzatu hori eman dadin, sektoreen jakite-alorrek eta gaitasunek ez dute elkarrengandik urrutiegi egon behar (bestela ernalketa gurutzatu hori ezinezko bihurtzen baita). Dibertsifikazioa behar duzu (bestela, alboan duzun jardueretatik deus gutxi ikasiko baituzu), baina espezializatua (hau da, jardueren jakitek eta gaitasunak ez dute zeharo desberdinak izan behar, bestela elkarren arteko sinergiak ez bailirateke emango).

Lurraldeen estrategiek produkzio-egituraren eraldaketa eta hobekuntza hori bilatu beharko lukete. Hori iristeko asmoz, 90eko hamarkadaren erdian Europako Batzordearen erregio-politikak erregio guztiei berrikuntza-estrategiak abian jartzea eskatu zien. Esperientzia horien emaitzak, ostera, nahiko kaskarrak edo negatiboak izan dira. Erregio gehienek argitaratutako estrategiei erreparatuz gero, denak igualtsuak zirela ohartzen gara. Erregio guztiek bio-erregio bat izan nahi zuten,

edo (IKT) Informazio eta Komunikazioetako Teknologietan erreferente, Nanoetan nabarmendu... Erregio guztien estrategiek elkarren kopia mimetikoak ziruditen.

Lurralde guztiek estrategia berberak izate hori, estrategiaren printzipioen kontra doa erabat. Lurraldeak ahalegindu behar dira bereziak izaten; hau da, haiek aukeratutako alorrean "bakarrak" izaten. Baina denek estrategia berdina aplikatzen badute printzipio hori ez da betetzen. Herrien inguruabar eta testuinguruak ezberdinak badira, haietan oin hartuz diseinatutako estrategiek ere desberdinak izan beharko lukete, derrigorrean. Estrategiak apustu egitea eskatzen du, eta baliabideak alor batzuetan kontzentratzea. Alor guztietan (bioetan, nanoetan, IKTetan... ) aritu nahi izanez gero, lurraldeak ez du baliabide aski izango alor horietan denetan eraginkor izateko, izan ere, alor bakoitzean eraginkor izateko gutxieneko inbertsioak egin behar baitira.

*"Sektoreen jakite-alorrek eta gaitasunek ez dute elkarrengandik urrutiegi egon behar"*

Errealitate penagarri horren aurrean zenbait autorek (Dominique Foray buru zutela) eta Europako Batzordeak erregioentzako espezializazio argiko estrategiak ("smart specialisation strategies") proposatzen

hasi dira. Hau da, haiek munduan lehiakorra izatea ahalbidetzen dieten alor gutxi batzuetan erregioen ikerketa eta berrikuntzako baliabideak kontzentratzea, eta beraz alor horietan espezializatuta agertzea. Haien ustez, espezializazio argiko estrategia baten muina, neurri handi batean, honako honetan zetzan: erabilera orokorreko teknologiak (funtsean, informazio eta komunikazioen, bioen eta nanoen teknologiak) lurralde horretako produkzio-egiturara egokitzean eta, horrela, herri horretako produkzio-egitura eraldatzean.

**Zer egin da, honi dagokionez, (EAE) Euskal Autonomi Erkidegoan?**

Laurogeiko hamarkadaren hasieran EAEk ekonomi eta politika eskumenak lortzen hasi zenetik, Eusko Jaurlaritzak industri politika aktibo bat abian jarri zuen, produkzio-egituraren





aldaketa helburu zuena. EAEko produkzio-egituran 80ko eta 90ko hamarkadetan aurrera eramandako eraldaketak, (I+G) ikerketa eta garapenena hain intentsiboak ez ziren politike-tan oinarritu ziren: birmoldaketa politikan 80ko hamarkadan; klusterretako politikan eta hirien eraberritze eta aeronautikaren dibertsifikazioetan 90ko hamarkadan. Horiek ere "espezializazio argiko estrategiak" izan ziren, zeren eta EAEko inguruabar berezia kontuan hartzen baitzuten eta produkzio-egituraren eraldaketa helburu baitzuten. Baina orduan lortutako espezializazio dibertsifikatu hori ez zegoen hainbeste I+Gn oinarrituta.

Milurteko berrian, ordea, dibertsifikazio espezializatua helburu zuen eta nagusiki I+Gn oinarrituta zegoen estrategia bat jarri zuen abian Eusko Jaurlaritzak. Lehendabizi, Biobasque izeneko estrategia jakitera eman zen (2003an), gero Nanobasque (2008an) eta azkenik aurtan Energibasque (idatzita egon arren, oraindik ere jakitera eman ez dena). Hiru estrategia hauetako abiapuntua, produkzio-egitura aldatzeko modua eta Gobernuaren eta agenteen jokaera ezberdina izan da.

Munduko bioerregio ezagunen (Boston, Cambridgen, eta abarren) arrakastaren atzean unibertsitateetan ikerketa-ahalmen handia eta farmazia enpresa sendoak aurkitzen ditugu. Horrelakoetan ezer gutxi zegoen EAEn. Nola gainditu zen eragozpen hori? Erregio horien estrategia modu mimetiko batean kopia-tu ordez, EAEn zeuden berezitasunen arabera estrategia bat antolatuz; hau da, Biobasque estrategia EAEko testuinguru bereziaren arabera moldatuz. Lehenengo hamarkadan estrategia horren helburu nagusia EAEn bio-enpresak sortzea izan zen. Horren eraginez, 75 bio-enpresa sortu zen, hau da, euskal bio-sektorearen ernamuina. Bioak ia hutsetik sustatu nahi izan duten erregioetatik oso gutxi lortu dute EAEn lortu dena: ikerketa-ahalmen sendoak (Biogune eta Biomagune CICak, adibidez) eta hainbat bio-enpresa sortzea. Dena den, biokluster hori sortzeko, baliabide mordo bat inbertitu behar izan da, eta, beraz, batek zalantzan jar lezake horren komenigarritasuna.

Nire irudiz, Biobasquek produkzio-egituran izandako eragina horretara bakarrik mugatuko bagenu, nahiko diru-zarrastelkeria izango litzateke. Baina, berez, Biobasquek produkzio-egituran lortu nahi zuen eraldaketa harantzago zihoan: sektore berri bat (bio-enpresa horiek

osatutakoa) sortzeaz gainera, ohiko sektoreen dibertsifikazioa ere ahalbidetu nahi zuen. Bai hornitzaileen aldetik (hau da makina-erremintako enpresak bio-enpresa eta osasun-sektorearentzat tresneria ekoizten hasiz) eta bai erabiltzaileen aldetik (hau da, elikagai eta abarretan bio-osagaiak sartuz). Bestela esanda, bioen iraultza edo eraldaketa ez litzateke bio-enpresetara bakarrik mugatu beharko, baizik eta produkzio-egituraren ia sektore guztietara iritsi beharko luke. Azken urrats hori ematen ez bada, orain arte bioetan egindako inbertsioa nolabait ere alferrik xahututa geldituko litzateke. Momentu honetan, premi-azko eta lehentasunezkoa da horren aldeko jarduerak bultzatzea.

Esan bezala, Nanobasque estrategia berandago sortu zen. Baldintzak ere ezberdinak ziren. Nano eta mikro alorrean unibertsitateak eta zentro teknologikoez zituzten ikerketa-ahalmenak ez ziren nolanahikoak. Bestalde, 60 enpresak, nano edo mikro-munduari lotutako ikerketa proiektuak martxan zituzten. Hala ere, alor honetan ere berealdiko inbertsioak behar ziren ikerketarako azpiegitura publikoak sortzeko. Izan ere, nanoen mundua arrunt konplexua da eta bertan jarduteko izugarritzko inbertsioak behar dira, gehienetan enpresen irizpidetik harantzago daudenak. Bestalde, bioetan ez bezala, hemen lehenengo helburua ez da nano-enpresak sortzea: era horretako enpresak sortzea txit zaila da, eta bakan batzuk izan ezik ez da espero sorkuntza handirik. Nanobasqueren helbururik behinena nanoak sektore tradizionaletan sartzea da eta, horrela, EAEko sektore tradizionalen eraldaketa eta dibertsifikazioa biziagotzea.

Azkenik, Energibasque da abian jarri den azken estrategia. Hori nahiko harrigarria da, zeren eta haxe baitzen EAEn ikerketa eta enpresen aldetik sendotasunik handiena erakusten zuen alorra: 350etik gora enpresa, horietako batzuk mundu-liderak bere arloan (Iberdrola, Sener, Gamesa...). Beraz, hemen, gobernuaz kanpoko jarduleen ekimenen

*"EAEk aurrera egingo badu lehiakortasunean, dibertsifikazio espezializaturantz urratsak ematen segitu beharko du"*



askoz handiagoa izan da. Sektore honetan, tankera ezberdineko dibertsifikazio espezializatuak aurreikusita daude: itsasoko energian sartzea, kotxe elektrikoa bultzatzea...

Laburbilduz, EAEk aurrera egingo badu lehiakortasunean, dibertsifikazio espezializaturantz urratsak ematen segitu beharko du. Modu ezberdinez egin badaiteke ere, erabilera anitzeko teknologiek horretarako aukera aparta eskaintzen dute. EAE horren aldeko apustu handia egiten hasi zen milurteko berrian. Hiru estrategia ezberdinak jarri dira abian: bioetan, nanoetan eta energian. Orain arte oinarriak jarri besterik ez da egin: azpiegiturak eta ikerketa-ahalmenak sortu. Baina inportanteena falta da: garatutako ahalmen horiek baliatuz, gure sektore tradizionalak eraldatzea eta dibertsifikatzea. Horretan asmatzen ez badugu, orain arte egindako ahalegina erdi alferrikakoa izango da.

# PRODUKZIO-EGITURAREN DIBERTSIFIKAZIOA NAFARROAN ETA ES- PEZIALIZAZIO ADIMEN- DUNeko ESTRATEGIAK

CRISTINA BERECHET  
EKONOMIALARIA, THINK TANK CIVISMO ER-  
AKUNDEKO IKERKETA-BURUA

Europako Batzordearen esanetan, espezializazio adimendunaren helburua da eskualdeek berrikuntzarako duten gaitasuna indartzea eta, lehiarako zer jardun-eremu abantailatsu dituzten identifikatu ondoren, haietan biltzea beren giza baliabideak eta finantza-baliabideak. Azken hamarkadatan, Europako eta Espainiako eskualde ugari abiarazi dituzte dibertsifikazio eta berrikuntzako estrategiak, bai eta espezializazio adimendunekoak ere, eta horietako askok Europako Batzordeak hazkunderako estrategia-mota horiek sustatzeari ekin baino lehenagotik ekin diote bide horri. Nafarroan, 1984an ekin zion Foru Diputazioak produkzio-egitura dibertsifikatzeari, Nafarroan Industria Sustatzeko Planaren bidez. Nekazaritzan oinarritutako ekonomia izatetik teknologia aurreratuko industria-eremua izatera arteko bidea egin du geroztik foru-komunitateak.

Enpresen eta administrazioaren arteko harreman estuek bultzatuta eta gobernuak baliabide eta eskumen propioak zituela baliatuz, energia berriztagarriak garatu ziren Nafarroan aurreko mendearen 90eko hamarkadan, metal-mekanikako sektoreak eta autoen sektoreak behar zuten energia elektronikoaren eskariari erantzuteko ("demand pull innovation"). Nafarroako Gobernuak energia eolikoaren aldeko apustua egin zuen mendetasun energetikoa murrizteko. 1989an, EHN enpresa sortu zen, eta, handik lasterrera, aerosorgailuak ekoizteari ekin zion Gamesa Eólica enpresak.

1995. eta 2000. urteen bitartean, energia berriztagarrien, eta, bereziki, energia eolikoaren loraldia izan zen Nafarroan, Nafarroako 1995-2000 Energia Planaren bultzadaz.

Aurreko mendeko 90eko hamarkadaren hasieran, industria-garapeneko garai baten ondoren, ikerketa sustatzeko politika publiko bati ekin zitzaion Nafarroan. Ikerketako lehen Eskualde Plana onartu zen 1990. urtean, eta haren jarduera-eremu nagusiak osasuna, nekazaritza eta giza baliabideak izan ziren, produktibitatearen hobekuntzarekin batera.

Foru-administrazioak, 2000. urtetik aurrera, berrikuntza bultzatzeari ekin zion, plan teknologikoen bidez. Ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak ahalik eta enpresa gehienetara zabaltzea izan zen lehen planaren helburuetako bat (2000-2003), azpiegitura teknologikoen oinarriak ezartzearekin batera. Ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak finkatzea eta lankidetzan sustatzea zen bigarren planaren xedea (2004-2007). Lau jarduera-eremutan antolatzen zen plana: berrikuntza eta jakintza, informazioaren gizartea (IKTak eta mikro eta nano osagaiak) garapen iraunkorra (energia garbiak, energia-eraginkortasuna) eta bizi-kalitatea (farmaziako eta nekazaritzako elikagaien teknologiak). Ikus

daitekeen moduan, Ikerketako Eskualde Planak aurreko hamarkadan adierazi zituen arloen antzekotasun handia dute.

Bionavarra izeneko estrategia izan zen II Plan Teknologikoen baitan abiarazitako espezializazio-estrategietako bat. Bere jardun-xedea zen Nafarroa "bioerregio" bat izatea, biziaren zientzien garapenean nabarmenduko dena, eta, ikerketaren bidez, sektore bioteknologiko propio bat sortzea, egungo enpresasarearen lehiakortasuna handitzeko. Hauek dira nazioartean lehiakor izateko aukera handienak iradoki dituzten jarduera-ildoak: biomasa eta bioerregaietarako mikroorganismoak eta

*"Nafarroan  
estrategikoak  
eta/edo  
tradizionalak diren  
sektoreak eraldatu  
behar dira,  
IKTak eta bio edo  
nano teknologiak  
erabiliz"*





entzimak eta laborantza energetikoen hobekuntza.

Hirugarren Plan Teknologikoa prestatu zen (2008-2011), ikerketa, garapen eta berrikuntzako jarduerak maiztu eta sakondu zituzten jardun-eremu horietan trebatutako eragileek, eta helburu hori lortzeko bidea eragileen artean I+G+b alorreko lankidetzari handiagoa sustatzea izan da, bai eskualdean, bai nazioan, bai nazioartean. Hirugarren planean, hauek izan dira Nafarroarentzat interes estrategikoa berezia duten jarduerak ekonomikoak: bioteknologia, informazioaren teknologia, nanoteknologia, enpresetarako zerbitzuak eta prestakuntza espezializatua. Jarduera horiek eragin horizontala dute sektore estrategiko hauetan: automozioa, makineria, energia berriztagarriak, biziaren zientziak, nekazaritzako industria, garraioak eta logistika. Hain justu, une edo puntu horretan jabetu da Nafarroako Foru Komunitatea, argi eta garbi, espezializazio adimenduneko estrategien abantaila: nekez izango da Nafarroa puntako erregioa, nazioartean, bioteknologiaren edo nanoteknologiaren jardun-eremuetan; aitzitik, teknologia horiek Nafarroan helduta dauden sektoreetan edo Nafarroarentzat estrategikoak diren sektoreetan erabiltzen badira, sinergiak sortuko dira enpresa-sarea osatzen duten sektoreen artean, eta horrek lehiarako abantailak sorraraziko ditu.

Eskualde-estrategia berri baten oinarriak ezarri ditu Moderna Planak (Eskualde Plan Estrategikoa). Navarra Planak, berriz, hiru ardatz estrategiko handi ezarri ditu: osasunaren ekonomia, ekonomia berdea eta talentuaren ekonomia. Medikuekin-ekipamenduak, osasun-zerbitzuak eta biomedikuntza dira osasunaren ekonomiaren jardun-eremuak. Ekonomia berdeak, berriz, nekazaritzako elikagaien industriak, energia berriztagarriak, eraikuntza eta turismo iraunkorrak eta ingurumena eta hondakinak lantzen ditu. Azkenik, mekatronika, hezkuntza eta enpresa-zerbitzuak dira, besteak beste, talentuaren ekonomiaren jardun-eremuak. Horrenbestez, Nafarroak sektore estrategikoen inguruan ekin dio dibertsifikazio-lanari, urte luzetan lehiaren aldetik abantailatsuak izan dituen sektoreengan eraginez, hala nola, osasunaren ekonomia eta farmazia-industriaren, energia berriztagarrien, automozioaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreengan. Nafarroako gobernuak lan handia egin du energia berriztagarrien teknologien garapena

bultzatzeko, baina ezinezkoa izango zen sektore horrek horrelako aurrerapen ikusgarria ematea, baldin eta ez balitz enpresaren eta administrazioaren arteko elkarlan estu bat izan. Horrek erakusten du funtsezkoa dela plan estrategikoak enpresa-sarearen laguntzarekin gauzatzea, eta, nola ez, sare horrek parte-hartze handiagoa izatea estrategiak prestatzeko garaian.

Hala ere, Moderna Planaren helburuak erdi-esteko, Nafarroan estrategikoak eta/edo tradizionalak diren sektoreak eraldatu behar dira, IKTak eta bio edo nano teknologia erabiliz. Horrez gain, urrats bat gehiago ere eman dezake, erabilera generikoa duten teknologietan berrikuntzak eginez, finkatuak baititu lan hori egiteko behar den laguntza teknologikoen oinarriak.

# KANPO-MERKATARITZA EUSKAL HERRIAN: KRISIARI AURRE EGITEKO AUKERA PAREGABEA

PEDRO JUAN LÓPEZ  
BILBOKO MERKATARITZA GANBERAKO  
TEKNIKARIA  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO  
IRAKASLE ELKARTUA

Artikulu honek labur aztertuko ditu Euskal Herriaren esportazio-ahalmen eta -jarduerak, eta, horrekin batera, gure enpresen esportazio-jarduerak egiten duten ekarpena baloratuko du, eskura ditugun azken datuen bilakaerari erreparatuta.

Horrez gain, esportazioak hobetzeko elementu batzuk proposatuko ditu, merkatuen dibertsifikazioaren eta prestakuntzaren jardun-alorrean.

Munduak zer-nolako egoera ekonomikoa bizi duen ikusita eta produkzio-sektorearen arazorik handiena eskari-krisia dela aintzat hartuta, ezinbestekoa da, eta ez beharrian soila, merkatu eta negozio-aukera berriak bilatzea.

## 1) ESPORTAZIO-JARDUNA HOBE DEZAKETEN ELEMENTUAK

### a) MERKATU ETA NEGOZIO-AUKERA BERRIAK BILATZEA

Non bilatzen hasi jakiteko, derrigorrean irakurri beharreko lana dugu Eusko Jaurlaritzak, lehentasunez zer herrialdeetan jardun behar den aztertzeke, 2011n prestatu zuen txosten mardula.

Agiri horrek luze eta zabal aztertzen ditu euskal esportazioak eta gure enpresentzat interesgarriak izan daitezkeen herrialdeak adierazten ditu. Txostenaren amaieran, hautatutako herrialde bakoitzari buruzko datuak banakatzen dira, eta, besteak beste, haietan izan

daitezkeen negozio-aukerak azaltzen dira.

Esportazioen alorrean eskumendun diren Administrazioak ez ezik, merkataritzaganberek ere badute interesik gure esportazioak hartuko dituzten herrialdeen dibertsifikazioa sustatzeko. Gaur egun, dibertsifikazioaren bidea egiteko, misio komertzialak bultzatzen ari dira eta harremanak egiten hainbat herrialdeetako enpresa eta ordezkari diplomatikoekin.

Oso lan mesedegarria da hori euskal esportazioen bideak zabaltzeko. Gurean badira esportazio-jarduera dibertsifikatuak erakusten duten hainbat enpresa, baina datu orokorrek ez dute halako joerarik adierazten. Esportazio-ehunekoek diote, oro har, Europar Batasunaren barruan egiten direla, esportazio-eragiketa gehienak, eta, bereziki, Frantziako eta Alemaniako merkatuetara. Euroaren herrialdeek krisi ekonomikoaren ondorioak bizi dituzte eta Frantziako eta Alemaniako ekonomiak hozten ari dira; beraz, pentsatzekoa da herrialde horietatik datorren eskari-zorroa murriztu egingo dela. Egoera horren aurrean, esportaziorako herrialde-sorta dibertsifikatu behar da, eta negozio-aukera onak emango dituzten merkatuak bilatu behar dira, kontuan hartuta krisiak eragina duela dagoeneko gorabideko herrialdeetan ere (Txinan, Indian, etab.).

### b) ESPORTAZIO JARDUERAREN PROFESIONALIZAZIOA

Enpresen Lehiakortasunerako Plan bat abiatu zuen Eusko Jaurlaritzak 2010-2013 eperako, eta, plan horren baitan, Internazionalizazioa Sustatzeko Planak ezarri zituen 2011. urtean. Plan horien ikuspegitik, funtsezko lau helburu ditu euskal ekonomiaren internazionalizazio-ekimenak:

1. Enpresen internazionalizazio-prozesuak bultzatzea.
2. Ekonomia irekiaren erronkei

erantzuteko gaitasun profesionalak eta sozialak izango dituzten pertsonak trebatzea.

3. Euskal esportazioen xedeko herrialdeak eta sektoreak dibertsifikatzea.

4. Kanpo-jarduera erakartzen ahalegintzea (Eusko Jaurlaritza, Enpresen Lehiakortasunerako Plana 2010/2013)

Aurreko atalean hirugarren helburua aztertu ondoren, bigarren helburuaren gaineko hausnarketak egin daitezke:

Erakundeak ahalegin handia egiten ari dira internazionalizazio-jardueren alorreko profesionalen gaitasunak hobetzeko; hala ere, lan hori egiteko jartzen diren baliabideen nolakotasuna alde batera utzita, beharrezkoa da urrats bat gehiago ematea, internazionalizazioaren alorreko prestakuntza egokiak duen garrantziaz jabetzeko.

Prestakuntza arautuko plangintzetan, enpresa-kudeaketari buruzko irakaskuntza-planek maiz askotan ez dute behar bezain beste landu nazioarteko ikuspegia, eta, batzuetan, ez dute kontuan hartu ere egin. Izan ere, ez da erraza, esaterako, nazioarteko gaitasunak lantzeko aukera emango duen unibertsitate-eskaintza bat aurkitzea.

Enpresek, maiz, esportazio-lanak egiten dituztenean, ez dute lan horietan trebatutako langilerik izaten, eta ez dute jakiten nola jokatu behar den esportazioen jardun-eremuan. Horren ondorioz, esportazioen kudeaketa ez da egokia izaten zenbaitetan, eta jarduera horien emaitza ekonomikoa ez da nahi bezain onuragarria izaten. Kudeaketa desegoki horren adierazleak oinarritzko alderdietan ikus daitezke; esaterako, kontratazioak egitean (esportaziokoak, agentzia bidezkoak, etab.), batzuetan, eta enpresa txiki eta ertainen gehienbat, ez baitira agiri idatziak erabiltzen (eredu estandarizatuak erabiltzen dira batzuetan). Beste kasu batzuetan, modu mimetikoan errepikatzen dira aurreko esportazio-eragiketen baldintzak, aintzat hartu gabe

eragiketa bakoitzaren ezaugarri bereziak. Beste arazo bat izaten da kanpo-merkatuetan sartzeko estrategia egokiak ez erabiltzea, ez delako alde aurretik aztertu esportazio-merkatuaren egoera edo modu sistematikoan utzi direlako besteren esku, eragile logistikoaren edo bitartekarien esku, oinarritzko funtzio eragileak.

Enpresek gai giltzarri moduan landu behar dute esportazioaren alorra, eta, esportazio-jardunari buruzko hausnarketa egin ondoren, enpresako pertsona eta jarduera-eremu guztiek inplikatu behar dute lan horretan. Hau izan behar du, beraz, esportazio-jardunaren abiapuntua: barne-azterketa bat egin ondoren, barne-merkatuan norberak duen lehia-posizioa neurtzea eta nazioartera irteteko aukerak ikustea.

## 2) EUSKAL ESPORTAZIOEN BILAKAERA

Datu hauek erakusten dizkigute euskal esportazioek, lurraldez lurralde:

### BIZKAIA

Bizkaian, 2011ko urtariletik azarora, 8.303.457,60 mila euroko esportazioak egin ziren. Merkataritza-balantzak, berriz, adierazten digu nabarmen igo direla inportazioak 2011ko azaroan, eta horrek 192.562,08 mila euroko saldo negatiboa eragin duela.

Hala ere, esportazio-jarduera osasuntsu ageri da lurralde horretan, beheranzko joera erakusten badu ere, %17,18 igo baita iaz hil horretan izan ziren zenbakiekiko. Azken hiruhilekoaren amaierako datuak eman ditu Eustatek, eta datuok adierazten digute iazko datuekiko igoera diferentziala %19,2koa izan dela iaz hiruhileko horretan izan zen datu-arekiko; beraz, agerikoa da beherazko joera aurreko bi hiruhilekoetan kontzentratu dela, nahiko nabarmen. Urteko lehen sei hilekoan, inportazioek izan zuten igoerarik nabarmenena (%25,9), eta horrek eragina izan zuen merkataritza-balantzean. Araba eta Gipuzkoarekin alderatuta, esportazioen igoera apalagoa izan zuen Bizkaia (%7,6). Denbora-epe horretan bertan, 4.184 milioi euroko esportazioak egin ziren, beheranzko bilakaera erakutsiz.





Frantziako eta Alemaniako merkatuetara joaten da Bizkaiko esportazioen herena, eta, horren harian, nabarmentzekoa da krisiaren eta Europar Batasunaren egoeraren ondorioz hozten ari direla herrialde horietako ekonomiak. Inkestek diote nabarmen jaitsi dela, 2010. urteko datuekiko, kanpo-merkataritzako eskaera-zorroa handitu dela aitortzen duten enpresen kopurua (%26 jaitsi da), eta hori Bizkaiko esportazioek beheranzko joera izan dezaketela iragar dezakeen zantzua izan daiteke.

## **GIPUZKOA**

Gipuzkoan, 2011ko lehen hiru hiruhilekoetan %16,2 igo dira esportazioak 2010. urteko denbora-epe berdinarekiko, eta igoera handienak garraio-materialetak, metalurgiako eta material elektrikoko sektoreek izan dituzte. Ehuneko hori, urrian, %19,5era igo zen, harik eta Euskal Autonomia Erkidego osoak Estatu espainiarreko esportazio-jardueraren baitan egiten duen ekarpeneko %33,6 izatera iritsi arte.

Azaroko datuek apaldu egin dituzte emaitza horiek, eta aurreko urteko hilarekiko igoera %17,39koa izan da. Azken datu horrek berretsi egiten du gaur egun hautematen ari den beheranzko joera.

Sektore-banaketari erreparatuta, ekipo-ondasunak, manufakturak eta automotzio sektoreak erakutsi dituzte datu onenak. Venezuela izan da Europar Batasunetik kanpoko bezero onena, trenbideetarako materialak erosi ondoren. Hala ere, Europar Batasuneko herrialdeetara egindako esportazio-eragiketak Gipuzkoako esportazio guztien %61,1 izan ziren data horretan.

Esportazioak hartu dituzten herrialdeei begiratuta, EB barruko eragiketak dira nagusi gainerako lurraldeetan gertatzen den moduan, eta, bereziki, Frantziara eta Alemaniara egindako esportazioak gailentzen dira.

## **ARABA**

Arabako Merkataritza eta Industria Ganberak egindako 2012 Enpresa Ikuspegiak izeneko azterlanak uste du esportazio-jarduerak arindu egingo dituela krisiak aurtan Araban izango dituen ondorioak. Aurrekariak ematen dute baikor izateko arra-

zoirik, Araba izan baitzen iaz igoera handieneko datuak erakutsi zituen lurraldea Euskal Autonomia Erkidegoan. Izan ere, urteko hirugarren hiruhilekoaren amaierako datuak konparatuz gero, %47,8ko igoera izan zuen Arabak iazko datuekiko. Hala ere, azaroko datuek berretsi egiten dute aurtengo urterako aurreikusten den beherazko joera, ehunekoetan izan den igoerak beherantz egin baitu, harik eta %29,84ko igoera erakutsi arte. Dena den, datu hori Bizkaia eta Gipuzkoakoa baino askoz hobea da.

## **NAFARROA**

Nafarroan, esportazioen igoera apalagoa da, %9,85ekoa, 2011ko azaroko datuak eta aurreko urteko hil bereko datuak erkatzen badiugu. Merkataritza-balantza positiboa da lurralde horretan, baina ez iaz izan zena bezain ona, inportazioek gora egin baitute. Beheranzko joera erakusten digute Nafarroako merkataritza-balantzaren datuek ere, 2011ko azaroko datuak apalagoak baitira aurreko urtean hil horretan izan ziren datuak baino.

Nafarroako esportazioen xede diren herrialdeen mapa nahiko mugatua da; izan ere, Europara esportatzen ditu kanpoan saltzen dituen gaien %83,7. Euskal Herriko gainerako lurraldeetan gertatzen den moduan, Alemaniako eta Frantziako merkatuak dira Nafarroako esportazio gehienak hartzen dituzten herrialdeak, eta, ondorioz, mendetasun handia erakusten du herrialde horietako eskari-zorroarekiko.

Kanpoan saldutako produktuetan, ibilgailuen salmentak dira produktu aipagarriena, Europar Batasuneko herrialdeetatik erosi direnak. Jarduera-sektore horretako piezak eta ordezkio elementuak ere arrakastatsuak izan dira eremu horretan.

Horrekin batera, bereziki aipatzekoa da Nafarroako nekazaritzak izan duen jokabidea, oso ondo saldu baititu produktuak atzerrian. Nabarmentzekoak izan dira, halaber, haren industria osagarriak ekoiztiko produktuen salmentak.

## **IPAR EUSKAL HERRIA**

Frantziako Estatuaren euskal lurraldeetan, bada ezaugarri komunik Hego Euskal Herriko lurraldeekin. Lehenik eta behin, 2011ko lehen sei-hileko datuei erreparatzen badiugu, ikusten da esportazio-jarduerak %8ko igoera izan duela eta merkataritza-balantzak zenbaki positiboak

erakusten dituela.

Produktu aeroespazialak dira, nabarmen, kanpoan gehien saldu direnak, nahiz eta, krisiaren ondorioz, logikotzat jo daitekeen salmenta-beherakada bat izan duten. Nabarmentzekoa da, era berean, ardoen esportazioak izan duen gorakada.

Nora saltzen den aztertzen jarrita, ikusten da Espainiako euskal lurraldeen tankerako egoera bat bizi dute Ipar Euskal Herrian, Espainia eta Alemania baitira hango produktuen erosle nagusiak.

Hala ere, esportazio-jardueren eragile nagusiak nazioarteko ezarpena duten enpresak eta Frantziako enpresa-taldeak dira, eta, ondorioz, beharrezkoa da euskal lurralde horietako enpresak (enpresa ertain eta txikiak, familiako enpresak...) kanpo-merkatuen bila hastea, esportazioen jardun-eremua lantzeko.

## EUSKAL HERRIA

Kanpoko salmentek gurean izan dezakeen bilakaerari buruzko hausnartzen jarritz gero, kontuan hartu beharreko lehen datua da Hego Euskal Herriko lurraldeek ageriko mendetasuna dutela Frantziako eta Alemaniako eskariarekiko, eta Ipar Euskal Herrikoek, berriz, Espainiako eta Alemaniako eskariarekiko. Esan beharrik ez dago krisiak ageriko ondorioak erakusten ari dela Estatu espainiarrean, eta Frantziako eta Alemaniako ekonomiak hoztebidean direla, eta, jada, hozten hasiak ere bai; beraz, eskari-zorroek horren eragina pairatuko dute. Gorabideko merkatu handienek ere munduko krisiaren ondorioak jasango dituzte, eta haien bilakaera eta portaerak aztertu behar dira. Merkatu berriak aurkitu behar ditugu, gure enpresek negozio-aukerak izan ditzaten.

Horrenbestez, erosle gehiago topatu behar ditugu gure produktuentzat beste lurralde batzuetan, aurreikuspen oneko merkatuetan (Indonesia, Iran...) Estatu espainiarraren kasuan, ezusteko datua da lau euskal lurraldeak direla, beren datu positiboekin, merkataritza-balantzako emaitzen lehenengo postuetan daudenak, eta, gainera, diferentzia handiarekin haien atzetik daudenekiko, Espainiako gainerako lurralde ia guztiek emaitza negatiboak izan baitituzte beren merkataritza-balantzean.

**Iturriak:** Eustat / Ices / Frantziako aduana / Merkataritza-ganberak: Bilbao, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Baiona

# EZTABAIDA FOROA: ZOR SUBIRANOA

## "SUB PRIME" KRISITIK "ZOR SUBIRANOAREN" KRISIRA

NEKANE JURADO, EKONOMIALARIA

Europa beste krisi batean sartzen ari dela entzuten ari gara, zor subiranoaren krisian, baina, egiaz, ez dugu inoiz gainditu 2007an hasi zen krisia, burbuila immobiliarioaren lehertzearekin abiatu zena. Krisi hori, gaur egun, orduz gero egin den gestio publiko kaltegarriaren ondorio da (kaltegarria herritar xumeentzat, ez finantza-kapitalarentzat).

Hau esaten da krisiaren arduradunetako bat gizartea bera dela sinestarazteko: "oparotasun garaian zorpetu gara, eta orain ez dago indarrik aldaketak egiteko, eta horregatik derrigortu zaie zorpetze handieneko herrialdeei zero defizitera inguratzeko neurriak hartzera. Nabarmen urritu da zenbait herrialdek duten erantzun-gaitasuna, zorraren, zorpetu ezinaren eta ildo horretako faktoreen ondorioz".

Baieztapen hori, ordea, okerra da euskal sektore publikoaren portaerari dagokionean; izan ere, 2007. urtea bitartean, superabit egoeran zuen aurrekontua, eta haren zor publikoa oso txikia zen Barne Produktu Gordinarekiko. Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren zor publikoak, 2007an, 628,4 eta 642 milioi eurokoak ziren, hurrenez hurren (BPGren %8,1 eta %1).

*"Nabarmen urritu da zenbait herrialdek duten erantzun-gaitasuna, zorraren, zorpetu ezinaren eta ildo horretako faktoreen ondorioz"*

Finantza-sektoreak gaizki kudeatu zuen oparotasun hura. "Zabor-hipoteken krisian", kapital-metaketa apaldu zuten bankuek, eta sektore publikoak ahalegin handiak egin zituen metaketa horrekin jarraitzeko behar zituzten elementu guztiak sortzeko. 2011. urte erdira bitartean, Europako bankuek 1,6 bilioi euro jaso dituzte laguntza publikoen bidez, eta

bankari eman zaion diru publiko hori guztia da, hain justu, egungo egoeraren giltzarria. Herrialdeek gutxitu egin dute beren gastu publikoa eta zorpetu egin dira, bankari dirua emateko. Diru hori, noski, ez da mailegu produktiboak emateko erabiltzen, herrialde horiei beraiei mailegatzeko baizik (eta, amaigabeko sorgin gupil batean, bankuei ematen zaie berriro), lau bider edo gehiago handituz, kobratzen dutenarekiko, ordaintzen dutenaren gaineko interes-tasa. Horiek horrela, izugarri igo da herrialdeen zor publikoa eta harengatik ordaintzen dituzten interes-tasak, eta ordaintzeko zailak ziren hipoteka-maileguek eragindako krisi hori ordaintzeko zaila den zor publiko baten krisi bihurtu da, eta "zor subiranoaren krisia" esaten diote. Ez da, beraz, sinetsarazi nahi diguten moduan, krisi berri bat, aurreko krisiaren ondorengoa baizik, eta, gainera, proposatu duten sendabidea lehengo bera da, bankari diru gehiago ematea eta gastu publikoa gero eta gehiago murriztea.

Hego Euskal Herrian, zergen bidez bildutako diruaren jaitsiera handia nabarmendu behar da, jardueraren beherakada baino askoz handiagoa izan baita. Zerga-bilketaren jaitsiera handi hori xehetasunez aztertuz gero, ondorio larri honek iristen gara: iruzur fiskala handitzeko erabili da krisia.

Hori argi eta garbi ikusten da presio fiskalari erreparatzen badiogu (zergen bidez bildutakoaren eta BPGaren arteko koefiziente moduan ulertuta), hura 2007. urtean BPGaren %20,9koa zen arren, BPGaren %15,3koa izan baitzen 2009. urtean (eta beheranzko joerari eusten dio). Burtsako IBEX-35 indizeko enpresen %69k negozioak dituzte paradisu fiskaltan, eta horien artean bereziki nabarmentzen dira, hain justu, Iberdrola, Iberdrola Renovables eta BBVA euskal enpresak (esaterako, azken banku horrek, 2010. urtean, 12.628 milioi euroko gordailuak zituen Kaiman Uharteetan).

Zergen bidez bildutakoaren beherakada handiak igo du, izugarri, zor publikoa, harik eta 1.839,1 eta 5.394,62 milioi eurokoa izan arte Nafarroako Gobernuarentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoarentzat 2011. urtearen amaieran (EAEn 6.432,93 milioi euroko zor bizia aurreikusten dute aurrekontuek 2012.





urtearen amaierarako).

Bestelako aukera egingarririk badenez, aipatzekoak dira, besteak beste:

- Egiazko erreforma fiskal sakon bat egitea, kapitalen mugimendua zergapetuko duena eta paradisu fiskalak egiaz zigortuko dituen, errotik desagerrarazteko iruzur eta ihes fiskalak.
- Banku publiko bat sortzea, kreditua zuzenean bideratzeko sektore publikotik familia eta enpresengana.
- Euro bat gehiago ere ez ematea finantza-sektore pribatuari eta erantzukizun penalak jasatzen diren banku-porroterei.
- Gizarte-alorreko gastu publikoa bultzatzea, ekonomia berpizteko elementua baita, eskari-arekiko eta barne-produkzioarekiko eragin biderkatzaile nabarmena duen aldetik.
- Gizarte-eskubide moduan bermatzea lana, eta, ondorioz, lana banatzea eta lan-merkatua babestu eta duintzea, batez besteko per capita errentaren %50ean finkatuz Lanbide arteko Gutxieneko Soldata.

Irtenbidearen kontrako norantzkoan doazen neurriak hartzen ari dira, eta bide horrek gizarte-suizidiora garamatza. Norabidez aldatu behar dugu, gure seme-alabek beste Euskal Herri bat merezi baitute, baina estatu subira-noek dute aginte-makila beren eskuetan. Horrenbestez, independentzia politikoak soilik eman ditzake paradigma ekonomiko berri bat eratzeke aukera errealak.

## BAKAR BAT IZANGO BAGINA BEZALA FUNTZIONATZEAK DAKARTZAN ONURAK

ANDER AIZPURUA, KUTXABAN-KEKO  
HANDIKAZKO NEGOZIO SAILAREN  
ZUZENDARIA

Artikulu bat idatzi bat behar nuela esan zidate-nean zalantza izpiren bat izan nuen idatzi-takoak kaleratzen zenerako baliorik izango ote zuen edo neurri edo egoeraren batek zaharkitua utziko ote zuen. Merkatu oso hegazkorretan bizi gara eta berri eta neurriak ditugu eguneroko janari.

1999an euroa indarrean sartu eta moneta politika bakarraren gerizpean Euro gunea osatzeko ibilbidea hasi genuen. Hazkunde ekonomikoaren laguntzarekin zentzu horretan eman beharreko pausuak eta zehazki, pausu horiek ematearen beharra atzeratzea ekarri zuten. Hala ere, bide horretan, Europako biztanleek eta herrialde ezberdinek gune hori sortzeko zuten kontzientziario eta sentsibilizazio maila ez zela behar bezainbestekoa ohar-tarazten zuen egoeraren bat ere izan genuen: Europako konstituzioaren aprobazio eza, adibide. Baina momentuko hazkundeak sistemak zituen eraginkortasun gabeziak bertan jarraitzea ekarri zuten.

Ordutik hona egoera zeharo aldatu da. Italiak, Europako 3. garren ekonomia eta G7ko kideak, Europaren laguntza jaso behar izan du. Portugal, Grezia eta Irlandarekin bat egin eta Euro gunea kolokan dagoela ohartarazi dute. Baina zergatik horrelako egoera bat? Moneta politika bakarrak, ekonomia eta zerga politika bakarra behar dituelako bidaide eta bere garaian Euro guneko kide izateko baldintza bezala jarritako neurriek ez zutelako aurreikusitako herrialde batek arazoak dituen momentuan eman beharreko pausuak eta erabakiak zeintzuk diren. Gaur egun euro-bonoak, aurrekontu bakarra... ez di tugu arrotz eguneroko jardunean baina herrialde guztiak ados jarri eta erabakiak hartzeak

denbora asko behar du, merkatuek nahi baino gehiago.

Eta zer eragin dauka aurretik aipatutakoak zor subiranoan? Zuzena eta erabakigarria! Herrialde batek bere inbertsio eta gastuei aurre egiteko behar adina bilketa ez duenean finantziario bila joan beharra dauka eta hori bi modutan egin dezake: mailegu edo finantziario bat eskatuaz entitate finantzarioari edo jaulkipenak eginez. Jaulkipen horiek inbertitzaile mota ezberdinek harpidetzen dituzte: pentsio planek, inbertsio fondoek, entitate finantzarioek, partikularrek... Euroa indarrean sartzeak herrialde ezberdinen zorraren interes tasak maila berdinerara hurbiltzea ekarri zuen, hau da, finantziario kostuak parekatzea. Honek merkatu zabal bat sortu zuen Europan, jatorri ezberdinetako inbertitzaileek herrialde bateko zorra erostea ohiko bihurtuz.

*"Eguneroko  
jardunean baina  
herrialde guztiak  
ados jarri eta er-  
abakiak hartzeak  
denbora asko behar  
du"*

Baina lehen aipatutako gabeziek krisi egoera honetan zorraren interes tasen artean diferentzia handitzea ekarri du, arrisku ordaina gehitzea nolabait, aurrekontu, arau eta politika ezberdinak tarteko. Nola jasan liteke Europa bezalako gune batean herrialde batek % 7ko kostua izatea jaulkipen batean eta beste batek % 1,8a? Neurriak hartzea ezinbesteko bihurtu da baina gero eta denbora gutxiago geratzen zaio ondorioak larriagoak ez izateko.

Eta askok galdetzen duten bezala zein irtenbide dauka egoera honek? Ekonomialari eta politikari bakoitzak proposamen ezberdinak egingo lituzke nahiz eta politika ekonomiko eta fiskal bakarraren beharra inork ere ezin alboratu. Europak erabaki ahalmen handiagoa behar du, euro-bonoen jaulkipena, aurrekontu bakarra, fiskalitate zentralizatua eta lidergotza argia izanik aurrera eraman gaitzaketen giltzarriak. Herrialdeek beraien soberaniari uko egin eta neurri handi batean bakar bat izango bagina bezala funtzionatzeak dakartzan onurak (finantziario kostua berdintzea...) Europari etorkizuneko atea zabalduko diolakoan nago.

## EZ DAGO IRTENBIDERIK ORAINGO EB-N

JOSEBA FELIX TOBAR-ARBULU, EHUKO  
IRAKASLEA, DOKTOREA INGENIARITZAN

Noizean behin irakurtzen dugu Euroguneko arazoek azkenean irtenbidea izan dutela. Baina irtenbide emaleek ez dute onartzen Euroguneko arazorik funtsezkoena finantza-arkitektura akatsez beteta dagoela.

Banku-sistemaren "arazoak" eta, ondorioz, premiazko birkapitalizazioaren "beharra" soilik arazo horren sintomak dira. Birkapitalizazioa ez da inolako irtenbidea solbentzia nazionalaren aferra baterako, banku-sistemaren krisia solbentzia horren sintoma delako.

Portugal, Irlanda, Italia, Grezia eta Espainiari buruzko kezka, eta, izatez, euro herrialde guztiei buruzkoa, arrazoizkoa da. Afera da EBko estatu kideak ez direla AEB bezalako estatua. Monetari dagokionez, lehenak subirautzarik gabeko estatuak dira, AEB estatu subiranoa den bitartean. Grezia, Italia, Frantzia, baita Alemania ere, euroaren erabiltzaileak dira, ez jaulkitzaileak. Estatu horiek Kalifornia, Massachusetts edo AEBtako beste edozein estatu bezalakoak dira, guztiak dolar-erabiltzaileak izanik. Soilik AEB, bere osotasunean, dolar jaulkitzailea da, FEDen bitartez.

Baina Euroguneko politikariek funtsezko puntu hori enoratzen segitzen dute, eta, hortaz, ez dute zuzenki erabiltzen mugagabeko euroak sortzeko ahalmena daukan erakunde bakarra, EBZ.

Alderantziz, herrialdeko gobernuek EFSF (European Financial Stability Fund) finantzatzen dutenean, azkenik Frantziaren eta Alemaniaren kreditu baloratzeak mehatxatzen dituzte, merkatuak galdetzen hasten direnean zerbateraino dauden prest EFSF delakoa sustengatzeko. Herrialde horiek guztiak ez dira subiranoak beren monetarekiko (euroa erabiltzen dute, baina ez dute euroa jaulkitzen), beraz, beraien solbentzia ezaren arazoa sakontzen da.

Merkatu presioak gaur egun Greziaren aurka ari dira, baina kezkarik nagusia da espekulatzaileek azkenean EBko herrialde kide handien kontra joko dutela, Italia edo eta Espainiaren aurka. Eta hemen EFSF-ren ahul

tasun estrukturala azaltzen da.

Eman ditzagun zifra batzuk. EFSFk eduki ditzake 440 x 109 euro, bilioi bat, 2 bilioi, are 10 bilioi, baina dena itzultzen da finantza iturburuetara. Ez dauka inolako zentzurik EFSF programa hori martxan jartzea EBZren laguntzarik gabe, berme sinesgarria egin dezakeen erakunde bakarra EBZ delako, mugagabeko euroa sortzeko ahalmena daukalako.

Hala Euroguneko politikariek nola merkatu parte hartzaileek ondoko bi puntu desberdin baina lotuta nahasten segitzen dute: solbentzia nazionalarena eta eskaria agregatuaren eskasiarena. Politikariek nahi dute EBZk biak egin ditzan, baina izatez EBZk soilik solbentzia aferra konpon dezake. Afera hori bide sinesgarri batean egiten denean, orduan kapital merkatuak berririkiko dira eta herrialdeek aukera hobe izango dute berriz finantzatzeko kapital merkatuen bitartez. Horrek esan nahi du ez direla behar bilioi dolar batzuk, zeren martxan erreminta sinesgarri bat baitago, hots, teklatu kolpe batez literalki bilioika euro sortu ditzakeen banku zentral bat eta, beraz, solbentzia nazionalari buruzko merkatuen kezkei aurre egitea. Puntu honetan, estatu desberdinen bonoak atsekabe gutxiagokoak bilakatuko dira eta banku birkapitalizazioaren beharra desagertuko da.

Baldin eta Alemania eta Frantzia sartzen badira zor subiranoaren bermeko aferan EFSFren bidez (hauxe gertatzen baita EBZk rolik ez baldin badu), horrek azkenean beren balantze nazionalak kutsatuko ditu. Ondorioz, merkatuek bi horien solbentzia zalantzan jarriko dute eta PIIGS harago kutsatze efektuak hedatuz. Horrelako ondorioak ikusten ari gara dagoeneko. Ondorioa: ez da inolako irtenbiderik topatuko harik eta EBko politikariek solbentzia arazoari soluzioa eman arte.

Austeritate neoliberaletik at, badago beste aukera bat. Horretarako, baina, merkataritza-bankuen eginkizuna, banku zentralaren zeregina, finantza-sistemaren eta diru-teoriaren funtzionamenduak ulertu behar dira: funtsean subiranotasun monetarioa da aferra eta, ondorioz, praktika fiskal sendoa. Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia>, batez ere 2010/01/03tik aurrera egin-dako lantxoak.



## "EKONOMIA DA, ARTABURUA!"

CARLOS ETXEBERRI, NOTICIAS DE GIPUZKOA

"Ekonomia da, artaburua!" Bill Clinton hautagai demokrataren James Carville aholkulariak bota zuen, 1992. urteko hauteskunde-kanpaina arrakastatsuan, gerora famatu egin den esaldia. Kanpaina horrek Etxe Zuriko Bulego Obalera eraman zuen Arkansasko gobernadorea zena, eta handik atera zuen George Bush aita, Ameriketako Estatu Batuen kanpo-politikaren ikur izan ziren Gerra Hotzaren amaierari edo Pertsiar Golkoko Gerrari begira zegoena, behar adinako arretarik jarri gabe herritarren eguneroko bizitzako arazoei eta beharrian larrienei. Esaldi horren mezua berpiztu zaigula esateko moduan gaude, zorrak arintzeko aurrekontu-murrizketak baitituzte hizpide bakar estatuek eta, lurralde-eremu txikiagoan, eskualde eta toki-erakundeek. Eta jakina da neurri horiekin ekonomia berpizteko tresnak atzentzen dituztela eta inbertsioak izozten.

Sektore publikoak darabilen politika murriztaile horrez gain, nabarmentzekoak dira enpresek dituzten arazo handiak finantza-sistema pribatutik finantzazioa eskuratzeko, sistema horrek arreta handiagoa jarrita baitauka jarduera ekonomikoaren beherakadak bere irabazi-marjinetan izan dezaken eraginean, kreditu-alorreko arriskuak gain hartzean baino, nahiz eta enpresek berme guztiak eman sistemari. Horrek enpresen itxiera ekar dezake, baldin eta 2012. urtean, dirudien moduan, atzeraldi batean sartzen bada ekonomia.

Herri-administrazioek finkatu duten lehentasunezko ekintza-ildoak austeritatearen printzipioa ezartzea izan da, baina agintarien ustez lortzekoak zirenen kontrako edo bestelako ondorio edo eraginak ikusten ari gara; izan ere, esan ziguten gastuaren murrizketek kontsumitzaileen eta enpresen konfiantza handituko zuela, eta konfiantza horrek gastu pribatua bultzatuko zuela, sektore publikoaren murrizketek eragingo zuten depresioa konpentsatuz.

Doktrina edo jardunbide horri esker, murrizketa-ildoari jarraitzen dio gastu publikoak, langabezia gora doa, eta ongizate-estatua atzerakada nabarmena jasaten ari da —bitxia da jardun-molde horrek indartu egiten

dituela, hain juxtu, egungo krisia eragin duten planteamendu neoliberalak—. Horren guztiaren ondorioz, betetzen ari da kapitalismoak, Berlingo harresia eraitsi eta munduko eredu bakar gisa geratu ondoren, trebetasunez idatzitako gidoia.

Sektore publikoak ez du izan behar etxeko ekonomien pareko funtzionamendurik, hau da, ez du, familiek egiten duten gisan, gerrikorik estutu behar diru-sarreraren galerari aurre egiteko, ekonomia geldiarazten baitute inbertsioak murrizteko politikek. Inbertsio publikorik ezean, ezin da ekimen pribatua sustatu, ez da enplegurik sortzen eta kontsumoak ezin du goranzko joerarik izan.

Ezin du gure agintarien lehentasunezko helburua izan gero eta murrizketa handiagoak egitea azpiegituratan, osasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan eta teknologia berrien ikerketan eta sustapenean. Jardueraren murrizketak zergen bidez bildutako diruzen batekoak urri baditzaie ere, sektore horietan inbertsioak egiten jarraitu behar dute, baina ekonomiaren ikuspegi oso eta orekatu bat izanez, pertsonekin errespetuz jokatzuz eta pertsonen interesen alde eginez, haiek baitira, neoliberalismoak besterik inposatzeko asmoa izan dezakeen arren, sistema ekonomikoaren subjektuak.

Horregatik guztiagatik, komeni da berriro indarrean jartzea Keynes ekonomialariak bere garaian adierazi zituen printzipioak, Mendebaldeko herrialdeak 1945eko gerraosteko atzeraldik ateratzeko balio izan zutenak. Keynesek esaten zuen Estatuak politika fiskal eta monetarioak egin behar zituela atzeraldiak eta krisiek aldiro ekonomian eragiten dituzten ondorioak arintzeko.

Aberastasuna eta enpleguak sortzen ditu enpresen jarduerak, eta hainbat baliabide ematen dizkio sektore publikoari. Hori da abiapuntua. Beraz, zenbat eta gehiago handitu zergadunen kopurua, orduan eta baliabide publiko gehiago sorraziko dira, eta horrek esan nahiko du enpleguen kopuruak gora egin duela eta, ondorioz, ekonomia hazi egin dela.

*"Sektore publikoak ez du izan behar etxeko ekonomien pareko funtzionamendurik"*

## PRENTSA DOSIERRA

### ZERGEI BURUZKO EZTABAIDA. ZERGAK IGO ALA GUTXIAGO GASTATU?

XABIER AJA, DEIA.

Finantza-krisia izan da 2011. urteko gertakari eta albiste nagusia, eta gurean, zehazki, krisi horrek zergen inguruan eragin duen eztabaida nabarmendu da. Jarduera ekonomikoaren beharrek bi efektu osagarri izan ditu: zergen bidezko diru-sarrerak urritu dira batetik, eta, horrekin batera, gizarte-gastuak handitu dira, langabezia igo delako, batik bat. Horren guztia ondoz, defizit publikoaren egoera ez da oneratzeko, eta horrek handitu egiten ditu herritarrek pairatzen dituzten efektu kaltegarriak, zaila eta garestia baita hura finantzatzeko Europar Batasuneko estatu gehienentzat. Espainiako estatuaren kasuan, arrisku-prima oso handia ordaindu behar izatea da egoera zail horren adierapen nabarmenena.

Euskadiko enpresek eta erakunde publikoek interes-tasa handiak ordaindu behar izan dituzte, denbora luzean mantendu ezinezkoak.

Egoera hori ikusita, eztabaida piztu da. Batzuek pentsatzen dute kosta ahala kosta murriztu behar direla gastuak, batik bat, herri-lanetan eta gizarte-laguntzetan egiten direnak, eta, ziur asko, baita osasunaren eta hezkuntzaren esparruetakoak ere. Eta, haien aurrean, beste batzuek pentsatzen dute handitu egin behar direla zergen bidezko sarrerak, presio fiskal handiago bat ezarritik.

Gizarte-maila ertainei presio fiskal handiago bat ezartzeak lekearen arazoa da hori kaltegarria izan daitekeela ekonomiarentzat. Diru gutxiago izango dute eskura eta, ondorioz, krisi ekonomikoa handi daiteke, kontsumoa apalduko delako. Azken hamarkadako datu objektiboek esaten dute presio fiskala arindu egin dela Euskadin eta Espainian.

ELA sindikatuak, EAEko datuei erreparatuta, gogorarazten du presio fiskala, 2009. urtean, ez balitz izan 2007. urtekoa baino arinagoa, herri-erakundeek 3.200 milioi euro gehiago

bildu izango lituzketela. Sindikatu horren esanetan, Europako batez bestekoa baino 9,6 puntu apalagoa da EAEko presio fiskala.

Estatuak BPGarekiko izan zituen diru-sarrera fiskalak ehuneko 5,5 puntu jaitsi ziren 2007 eta 2010 urteen bitartean, %37,2tik %31,7ra; hala, OCDE organizazioko Revenue Statistics azterlanaren arabera, Espainia izan zen, OCDE organizazioko herrialdeen artean, presio fiskala gehien arindu zuena epe horretan.

Fiskalitate zuzena da bidezko eta progresiboa, beren errenta-mailaren arabera ordaintzen baitute herritarrek, baina irudi-arazoak dakartza horrek hauteskundeei begira, eta, ondorioz, alderdi politikoek zeharkako fiskalitatearen alde egin ohi dute. Horren adibidea da BEZa, zergapetuentzat agerikoagoa baita PFEZan diru-zenbateko bat atxikitzea, ogi-barra bat erostean haren zati bat zerga moduan ordaintzea baino.

Horiek horrela, presio fiskala handitzeko bideari ekin zaio EAEn, Ondarearen gaineko Zerga eta Ondorengotzen gaineko Zerga berrezarri baitira eta banku-gordailuen interesak zergapetzeari ekin baitzaio, besteak beste. Neurri horien arazoa da gizarteko aberatsek nekez betetzen dituztela, SICAV sozietateak eta bestelako figura juridikoak erabiltzen baitituzte zerga gutxi ordaintzeko. Hala, maila ertainak zigortzen dituzte neurri horiek, beren zergak (PFEZ, BEZ, etab.) ordaindu ondoren, zerga-karga handiagoi egin behar baitiete aurre. Ondorengotzen gaineko Zergaren eta Sozietateen Irabazien gaineko Zergaren kasuan, kontuan hartu behar da enpresen lehiakortasuna kalte dezaketela, eta, bereziki, lanpostu gehien sortzen dituzten enpresena, enpresa txiki eta ertainena.

Oreka lortzea zaila den arren, ez da ahanzi behar gastuak murriztu behar direla, bai, baina ongizate-estatuaren oinarriak kolokan jarri gabe, hau da, osasuna, hezkuntza eta pentsioak ezbaian jarri gabe. Dena den, horrek ez du esan nahi gehien dutenei gehiago ordainarazteko formulak bilatu behar ez direnik.



## AHT XEDEA KOPURUEN ARGIRA

AITOR RENTERIA, BERRIA, BAIONA

Lapurdin AHT bide berriei buruzko eztabaida ez dago baretzetik hurbil. 2004an tren egitasmoen buruzko eztabaida publikoa burutu zenetik, kopuruak argitzea izan da lehen eskaria. Izan ere, kopuruetan oinarritu zuen RFFk xedea. 2020rako lehenik, 2025erako ondoren, 2030era gero, oraingo trenbideak saturaziora helduko zirela iragartzen zuen RFFk. Hori ez gertatzeko bide berriak egin behar zirela errepikatzen zuen. Alta, ustezko saturazio arriskua faltsua dela dio CADEK, RFF eta SNCF konpainiek isilpean gorde nahi izan dituzten estatistikak lekuko.

Salgaien eta bidaiarien garraioa puzturik zegoela onartu ondoren, 2004az geroztik egin aitorzak ahanzi eta azken hamar urteotan %40 emendatu dela dio orain RFFk. Ingurumenaren aldeko taldeen datuak RFFren diskurtso osoa deusesten duten lurrikara dira. 1998an 2,4 milioi tona pasatzen ziren Hendaiatik, 2008an 2,02 MT. 2009an salgaien garraioa brauki apaldu zen, 1,65 M tonara. RFFk iragarri emendatzea urtu da eta horren orde ageri da salgaien garraioa %33,5 apaldu dela. 2020ean salgaien garraioa 20 M tonara helduko zela iragarri zuen RFFk. Aurreikuspenen harira, gaur egun abantzu bederatzi milioi tonakoa izan beharko litzateke.

AHTaren eztabaida saihestu eta RFFk Baionako geltokiari buruzko adostasun prozedura ezarri du abian. Bertan jasotako erantzunak ere min eginen diote begietan. 6.601 ekarpen jaso ditu inkestak eta horietan 5.789 AHT xede berriaren aurka azaldu dira. Frantziak ulertu du Lapurdiko hautetsi eta herritar gehienak xedearen

*“Ingurumenaren aldeko taldeen datuak RFFren diskurtso osoa deusesten duten lurrikara dira”*

aurka daudela. Ikusirik mobilizazioa, pastanarriaren eta makilaren filosofia hartu du eskuan. Batetik agindu du AHT xedea egiteko zundaketak bertan behera gelditzea. Bertze aldetik, ordea, saturazio arriskua egonez gero bide hori eginen lu-

keela dio. Akitaniako Prefetak ekarpen ezin argiagoa egin du: “teknikak biziki aitzinatu dira eta gaur egun ez dugu zundaketa egin beharrik AHTa egiteko”. Gainerateko herri guztietan beharrezkoak direnak, Ipar Euskal Herrian ez.

## AMONIO NITRATOA PORTUAN

Pirinio Atlantikoetako prefetak ez du segurtasun arazorik ikusten Biarnoko Yara enpresak aurkeztu duen xedean. Yarak amonio nitratoa garraiatu nahi du Baionako portua baliatuz, modu horretan Lacq-en duen lantegiraino eramateko. Baiona, Angelu eta Bokaleko auza-pezek, Tarnozekoarekin batera (Landak, Frantzia), gaitzespen zorrotza adierazi diote enpresaren xedeari. Auzapezen iritziz, amonio nitratoa biziki arriskutsua da, eta hirigintza biziki hedaturik dagoen gunean pasarazteak herritar anitzen bizia arriskuan ezartzea ekar dezake. Prefetaren iritziz, ordea, ez dago segurtasun arazorik. Prefetaren oniritzia jasota, Akitaniako Kontseiluak hartu beharko du erabakia orain, hura baita Baionako portuaren jabea.

Baionako portuan utziko duen etekina txikia izanen dela azpimarratzen dute CADEK eta Sepansok. Arriskuak, aldiz, handiak. Gogo guztietan dago oraindik 2001eko irailaren 21ean Okzitaniako (Frantzia) Tolosa hirian gertatu zen leherketa. 30 hildako eragin zituen, 2.242 pertsona artatu behar izan zituzten erietxetan, 2,5 mila milioi euroren galerak izan ziren eta 1.200 lanpostu galdu ziren. Angeluko auzapezari igorritako gutunean, suprefetak berak aitortu du portuko egitura zaharkitua dagoela arrisku horri buru egiteko.

Urrian istripu bat gertatu zen Yara enpresak Pardiesen (Frantzia) duen egoitzan. Amonio nitratoa ontzi batetik bertzera pasatzen ari zirelarik 200 litro isuri ziren. Istripuaren ondorioz bi langile izan ziren larriki zauriturik. Horietako batek erredura larriak ditu gorputzaren %40an. Baionako portuan segurtasun frogak egin eta bost egunera gertatu da istripua. Ingurumenaren aldeko taldeek xedearen arriskua erakusten duela diote.



## LANGABEZIA: IKUSTEKO AL DUGU OKERRENA?

MIREN IBAÑEZ, NOTICIAS DE ALAVA

Euskadik nahiko ondo egin dio aurre orain arte krisi ekonomikoari. Lehman Brothers konpainiak 2008an porrot egitearekin batera nabarmendu zen krisia, eta, hasiera haietan, finantza-sistemaren hondamendia izan zen haren adierazpiderik agerikoena. Hondamendi horren ondorioz, kreditu-ildoak eten ziren eta jarduera ekonomikoa geldotu. Horrek guztiak langabezia handia eragin du Espainian eta, azkenaldian, arazo handiak sortu dizkie Europako herrialdeen zor publikoei. Espainiak langabezia-tasa handiak dituen arren, Euskal Autonomia Erkidegoak langabezia-tasa nabarmen apalagoak izan ditu, industria baita bere sare ekonomikoaren ardatza eta ez, hainbeste, eraikuntza. Dena den, Euskadiren egoera mugara iristen ari dela dirudi.

Azken aurreikuspenek diote langabezia %23ra igoko dela Espainian 2012 eta 2013 urteetan (OCDE organizazioak egin du aurreikuspen hori), eta Espainiako ekonomia, eta harekin batera Euskadikoa, atzeraldi batean sartuko dela. Euskadiko kasuari erreparatuta, esan behar da industriak eutsi egin diola, neurri batean, enpleguaren galerari (ez da halakorik gertatu eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreetan), baina Frantzia eta Alemania indartsuek beren hazkundera geldotu dutenez, esportazioek behera egin dute eta horrek, luzera, lanpostuen galera eragingo du.

Egoeraren erakusle argigarria da langabeziak EAEn izan duen bilakaera azken urtean: Biztanleria Aktiboaren Inkestak azken datuek esaten dute %9,98koa zela lanik gabeko pertsonen ehunekoa 2010. urteko hirugarren hiruhilekoan, eta urtebete geroago portzentaje hori %12,17ra igo dela. Hau da, 2011ko urriaren 1ean 129.100 pertsona zeuden lanik gabe, hamabi hilabete lehenago baino 24.800 pertsona gehiago. Egoera horretan, enplegu-politika aktiboak bereganatu ditu Eusko Jaurlaritzak 2011ko urtarrilean, baina, oraingoz, ezin izan du langabeziaren handitze-joera eten.

Drama humanotik harago, zifra edo datu horiek erakusten digute Europako ekonomiaren geldialdi handi horrek gero eta langabezia handiagoa eragingo duela, zorraren krisiaren eta,

batik bat, euroaren ezegonkortasun handiaren ondorioz. Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak beharantz berrikusi ditu 2011ren amaierako eta 2012rako aurreikuspen guztiak. Enpleguaren alorrean, Lakuak aurreikusi du ekitaldi hau %11,1eko langabezia-tasarekin amaituko dela, eta 2012ko lehen bi hiruhilekoetan %11,3ra arte igoko dela.

Egoera orokor horren argazkitik, gizarte-kohezioarentzat garrantzi handia duen elementu bat nabarmendu behar da: langabeziaren mapak erakusten duen desoreka handia lurraldeen artean. Biztanleriaren Jardueraren araberrako azken Inkestak (urrikoak) erakutsi du langabezia %6,9koa dela Araban; Bizkaian, tasa hori %13,5koa da, ia bikoitza, eta %18ra igotzen da Ezkerraldeko udalerrri batzuetan. Gizarte-desoreka horiek ikus daitezke, halaber, beste datu batzuetan; izan ere, Lanbideren azken Lan Abagunearen Buletinak (2011ko bigarren hiruhilekoa) adierazten du gizonek baino langabezia-tasa handiagoa pairatzen dutela emakumeek, gizonena baino azkarrago igotzen dela, lanik gabe dagoen hiru pertsonetatik bat denbora luzea daramala lanik gabe eta azken pertsona horien kopurua %17 igo dela urtebetean. Horrez gainera, 2010eko uztailaren eta 2011ko uztailaren artean, 8 puntu jaitsi da lanik izan ez baina prestazioren bat jasotzeko eskubidea duten pertsonen ehunekoa eta, gaur egun, portzentaje hori %44aren ingurukoa da. Faktore horiek guztiek egoera dramatikoak eragiten dituzte, hala nola, langabezia kroniko bihurtzea, eta, kasu askotan, gizarte-bazterketako arriskua. Erronka horiei aurre egin behar diete herri-erakundeek, baina, garaiotan, gastuak asko zaintzera behartuta daude eta aurrekontuek oso maniobra-tarte estua ematen diete.

## KANPO MERKATARITZA

JUAN ANGEL MONREAL. DIARIO DE NOTICIAS

Kanpora egindako salmentek eutsi zioten euskal ekonomiari 2011. urtean, baina, hala eta guztiz ere, ekonomiak geldialdi nabaria izan zuen urteko azken hiruhilekoan. Langabezia handiak etxeko kontsumoa apaldu zuela ikusita, merkatu berrien bila abiatu ziren iaz Nafarroako enpresak, baina Europako herrialde aberatsenen hazkundearen atzetik eta haien mende jarraitu zuten. Alemania eta Frantziako ekonomiek hozteko joera erakutsi zuten urtearen erdialdetik aurrera, eta, horren eraginez, kanporako salmenten hazkundera apaldu egin zen zertxobait. Enpresek beraiek egindako kalkuluen arabera, kanpo-salmenten igoera %10ekoa izan zen urte amaieran.

Euskal Autonomia Erkidegoan, enpresek ahalegin berezia egin zuen Ameriketako Estatu Batuetara saltzeko, ia mila milioi euroko esportazioak egin baitzituzten irailera arte, 2010. urteko epe berean kanpoan saldu zutena baino %50 gehiago. Herrialde erosleei erreparatuz gero, profil nahiko dibertsifikatua ikusten da Estatuko batez bestekoekin alderatuta, eta, esaterako, %10 igo dira Txinara egindako salmentak, baina badira beste erosle batzuk ere, gero eta gehiago erosten dutenak, krisiak oraingoz min handirik egin ez dielako; hala nola, India, Indonesia, Turkia, Brasil, Errusia eta Polonia. Hala ere, Frantziara eta Alemaniara joaten dira oraindik ere euskal esportazioen %30 baino gehiago.

Nafarroan, egonkor jarraitu zuen kanpoan saltzen duten enpresen kopuruak; izan ere, iazko lehen bederatzi hiletan, 1.806 enpresak saldu zuten atzerrian, hau da, 2010ean baino %0,1ek gehiagok. WV automobil-enpresaren bultzadaz, aurreko urtean baino gehiago saldu da, %10 gehiago urte amaierako kalkuluen arabera, baina kanpoan saldu duten enpresen kopurua ez da ia ezertxo ere igo. Datuek erakusten

*"Nekazaritzako  
elikagaien  
sektorea izan da  
Nafarroako  
jarduera  
ekonomikoaren  
beste  
pizgarrietako  
bat"*

dute, 2010eko datuekin alderatuta, egonkortzen ari dela kanpoan saltzeko urratsa eman duten enpresen kopurua, urte hartan 200 enpresak eman baitzuten urrats hori, baina, era berean, esportazioen bolumena handitzen ari dela adierazten digute. Esportazioak, guztira, ia %13 igo ziren urteko lehen hiru hilekoetan, eta igoera-erritmoa apaldu egin zen urtearen amaieran. Esportazioen ia erdia (%48) automobilgintzaren sektoreak egin zituen, oso urte ona izan ondoren: Volkswagen enpresak Nafarroan duen lantegiak 350.808 ibilgailu egin zituen, eta horien %90 baino gehiago atzerriko merkatu saltzeko egin ziren. Enpresa horren muntatze-lanetarako lantegiak egiten ditu, zuzenean, esportazio guztien %35, eta gainerako %13a fabrika horren inguruan hazitako automobil-piezen industriak saldu du atzerrian —hala ere, azken industria horrek, maiz, bere kabuz egiten ditu esportazioak, beste fabrikatzaile batzuentzat ere lan egiten baitu—. Baina daturik onena ez da izan, akaso, Volkswagen lantegiarena. Eraikuntza-enpresek eta haiei lotutako industriak ia %45 gehiago saldu zuten atzerrian, bai eta ekipo elektronikoak egiten dituzten enpresek ere (%44 gehiago). Energia berriztagarrien sektoreak egin ditu kanpo-salmenta guztien %20, eta esportazioen hazkundearen eragileetako bat izan da. Sektore hori izan da, hain justu, gehien garatu denetako bat azken hamar urteetan Nafarroan, baina orain Espainiako merkataritza-arauen eta ekonomiaren ziurgabetasunaren ondorioz, beste merkatu batzuetan saltzen eta haietan ezarpenak egiten saiatzen ari da. Kanpo-merkatuetan leku bat egiten saiatzen ari diren enpresa horietako hiru dira, esaterako, Acciona, Gamesa eta Ingeteam.

Nekazaritzako elikagaien sektorea izan da Nafarroako jarduera ekonomikoaren beste pizgarrietako bat, bai barne-merkatuan, gainerako sektoreek baino beherakada apalagoa izan duen neurrian, bai kanpo-merkatuan. Nafarroako gero eta enpresa gehiagok saltzen dituzte elikagaiak beste herrialde batzuetan, eta haien produktuak supermerkatu-kate handietako apaletan daude eskuragai. Horren adibide dira Virto (200 milioiko fakturaziotik gertu dagoena) eta Riberebro (Gvtarra, Ja'e eta Ayecue eta beste marka batzuk biltzen dituena), Wall-Mart eta Carrefour supermerkatuetan baitituzte salgai beren produktuak.



## GIZARTE ZERBITZUEN JASANGARRITASUNA

JOSEBA SALBADOR GOIKOETXEA, GARAKO  
EKONOMIA SAILA

### Ardura eta elkartasunaren garaia

Azken urte hauetan bizitzen ari garen krisialdi ekonomikoak eztabaida interesgarria jarri du mahai gainean, alegia, gizarte zerbitzuen jasangarritasunarena. Izan ere, herritarren ia gehiengo osoa hezkuntza, osasuna eta gizarte laguntzak mantentzearen aldekoa da, baina zerbitzu horien finantziazioaz hitz egiterakoan, iritziak desberdinak dira. Batzuen ustetan, oraindik nahikoa diru badago erakunde publikoetan eta egin behar dena gastua berrantolatzea da. Beste batzuen iritziz, zergak igotzen hasteko garaia iritsi da. Eusko Jaurlaritzak joan zen uztailean ezagutzera eman zuen inkestaren arabera, ordea, herritarren %16 bakarrik legoke zergak igotzeko prest horrek ongizate estatua mantentzen lagunduko balu.

Izan ere, ez da erraza hilaren amaiera iristeko arazoak dituen familia bati zerga gehiago eskatzea, eta horretara iritsi baino lehen beste irtenbide batzuk aztertu beharko lirateke. Krisialdi honek zerbaitearako balio izan badu, orain arte gauzatu diren politiken akatsak azaleratzeko izan da. Izan ere, azken urte hauetan zergak poliki-poliki, ia oharkabea, jaisten joan diren bitartean –behar politikoak bultzatuta–, erakunde zorrak poliki-poliki baita ere igotzen joan dira –urte oparoek ematen duten konfiantzak bultzatuta–. Horren guztiaren ondorioz, gaur egun gure foru Gobernuak ia irtenbiderik gabeko kale batean sartuta daude, alde batetik inoren gustukoa ez delako zergak igotzen hastea eta, bestetik, Europako Batasunetik datozen arauak zorpetze publikoa jais-tera behartzen dutelako.

Beraz, erakunde publikoei geratzen zaien bide bakarra gastuaren berrantolamendua da, baita zergena ere. Gastuaren berrantolamenduak arriskuak ditu eta, 2012ko aurrekontuen proiektuetan ikusi ahal izan dugunez, murrizketak nabarmenak dira: %16,6 Araban, %13,3 Gipuzkoan, %2,95 Nafarroan eta %1,7 Bizkaian, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren murrizketa %1 den bitartean. Hala ere, gizarte zerbitzuei zuzendutako ataletan aldeak handiak

dira. Nafarroan, adibidez, Hezkuntza %4,45 murriztuko da, Gizarte Politika %3,3 eta Osasuna %3,08. EAEn, berriz, Hezkuntza %0,9 jaitsiko da, Gizarte Zerbitzuak eta Enplegua %1,7 eta Osasuna %0,5. Diputazioei dagokionez, Bizkaian Ekintza Soziala %0,5 igoko dela iragarri dute, Araban %2,8 eta Gipuzkoan %7,7.

Egoera zaila bada ere, gero eta gehiago dira inoiz baino premiazkoago ikusten dutenak une honetan gizarte zerbitzuetan inbertitzea, ez bakarrik asistentzia maila mantentzeko, baizik eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko, jakin bai baitakigu murrizketek geldialdia eta langabezia besterik ez dakartela. Europako Batasuneko zenbait estatutan gertatu denari erreparatzea besterik ez dugu.

Horregatik, izenburuan genion bezala, inoiz baino premiazkoagoa izango da arduraz jokatzeko, baita zergen berrantolamenduan ere. Eta hemen ere aldeak nabarmenak dira foru Gobernuen artean. 2011ko amaieran Zerga-Koordinaziorako Organoan egindako bileretan agerian geratu ziren desberdintasunak, batzuk ez baitaude egungo sistema aldatzearen alde.

Baina diru-bilketan ere badago berrantolaketarako aukerarik, gehien dutenek ez baitute beti gehiago ordaintzen eta jarduera ekonomiko askok ez baitu zergarik ordaintzen. Atal honetan berebiziko garrantzia du iruzurraren aurkako ahaleginak, nekez eskatu ahal izango baitaio herritarrari zerga-igoerarik iruzurraren aurka nahikoa egiten ez dela ikusten badu. Eta hemen dator izenburuan aipatzen genuen elkartasunaren garrantzia. Izan ere, aberastasuna banatzeko garaia heldu da. Egoera larri baten aurrean, gutxi izango dira elkartasunerako prest ez daudenak. Baina horretarako, erakunde publikoen jardura inoiz baino gardenagoa eta justuagoa izan behar du. Ereduarekin erakusten baita.



# EUSKAL HERRIKO ADIERAZLE GALERIA

| ADIERAZLE GALERIA:<br>BIZTANLERIA ETA LURRALDEA                                              |             |             |             |             |             |             |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
|                                                                                              | 2006        | 2007        | 2008        | 2009        | 2010        | 2011        |
| Araba                                                                                        | 303.727     | 307.316     | 311.523     | 315.780     | 319.326     | 321.205     |
| Gipuzkoa                                                                                     | 691.895     | 694.944     | 701.056     | 705.698     | 707.263     | 709.607     |
| Nafarroa Garaia                                                                              | 601.874     | 605.876     | 620.377     | 630.578     | 636.924     | 642.051     |
| Bizkaia                                                                                      | 1.140.236   | 1.141.840   | 1.146.811   | 1.153.033   | 1.154.099   | 1.156.141   |
| Lapuri                                                                                       | 218.910     | 218.910     | 234.845     | 237.076     | 239.635     | 239.635     |
| Nafarroa Beherea                                                                             | 28.361      | 28.361      | 29.849      | 30.038      | 30.357      | 30.357      |
| Zuberoa                                                                                      | 15.540      | 15.540      | 15.350      | 15.298      | 15.280      | 15.280      |
| Euskal Herria                                                                                | 3.000.543   | 3.012.787   | 3.059.811   | 3.087.501   | 3.102.884   | 3.114.276   |
| Finlandia                                                                                    | 5.255.580   | 5.276.955   | 5.300.484   | 5.326.314   | 5.351.427   | 5.375.276   |
| EB-27                                                                                        | 493.226.936 | 495.305.424 | 497.645.455 | 499.723.520 | 501.103.425 | 502.477.005 |
| Biztanleriaren hazkundera (%). Euskal Herria eta nazioartea, 2001/2011.                      |             |             |             |             |             |             |
|                                                                                              | 2006        | 2007        | 2008        | 2009        | 2010        | 2011        |
| Araba                                                                                        | 0,7         | 1,2         | 1,4         | 1,4         | 1,1         | 0,6         |
| Gipuzkoa                                                                                     | 0,5         | 0,4         | 0,9         | 0,7         | 0,2         | 0,3         |
| Nafarroa Garaia                                                                              | 1,4         | 0,7         | 2,4         | 1,6         | 1,0         | 0,8         |
| Bizkaia                                                                                      | 0,3         | 0,1         | 0,4         | 0,5         | 0,1         | 0,2         |
| Lapuri                                                                                       | 0,0         | 0,0         | 7,3         | 0,9         | 1,1         | 0,0         |
| Nafarroa Beherea                                                                             | 0,0         | 0,0         | 5,2         | 0,6         | 1,1         | 0,0         |
| Zuberoa                                                                                      | 0,0         | 0,0         | -1,2        | -0,3        | -0,1        | 0,0         |
| Euskal Herria                                                                                | 0,6         | 0,4         | 1,6         | 0,9         | 0,5         | 0,4         |
| Finlandia                                                                                    | 0,4         | 0,4         | 0,4         | 0,5         | 0,5         | 0,4         |
| EB-27                                                                                        | 0,4         | 0,4         | 0,5         | 0,4         | 0,3         | 0,3         |
| Biztanleriaren dentsitatea (bizi/km <sup>2</sup> ). Euskal Herria eta nazioartea, 2000/2011. |             |             |             |             |             |             |
|                                                                                              | 2006        | 2007        | 2008        | 2009        | 2010        | 2011        |
| Araba                                                                                        | 91,71       | 92,79       | 94,06       | 95,35       | 96,42       | 96,99       |
| Gipuzkoa                                                                                     | 349,92      | 351,46      | 354,55      | 356,90      | 357,69      | 358,88      |
| Nafarroa Garaia                                                                              | 57,92       | 58,30       | 59,70       | 60,68       | 61,29       | 61,79       |
| Bizkaia                                                                                      | 511,04      | 511,76      | 513,99      | 516,78      | 517,25      | 518,17      |
| Lapuri                                                                                       | 253,58      | 253,58      | 272,04      | 274,63      | 277,59      | 277,59      |
| Nafarroa Beherea                                                                             | 21,40       | 21,40       | 22,53       | 22,67       | 22,91       | 22,91       |
| Zuberoa                                                                                      | 19,00       | 19,00       | 18,77       | 18,70       | 18,68       | 18,68       |
| Euskal Herria                                                                                | 143,44      | 144,03      | 146,27      | 147,60      | 148,33      | 148,88      |
| Finlandia                                                                                    | 17,3        | 17,4        | 17,5        | 17,6        | 17,6        | 17,7        |
| EB-27                                                                                        | 114,78      | 115,27      | 115,81      | 116,29      | 116,62      | 116,94      |

| 15 urtetik beheragoko biztanleria (%). Euskal Herria eta nazioartea, 2000/2011. |       |       |       |       |       |       |
|---------------------------------------------------------------------------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
|                                                                                 | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
| Araba                                                                           | 12,44 | 12,64 | 12,87 | 13,15 | 13,45 | 13,79 |
| Gipuzkoa                                                                        | 13,12 | 13,35 | 13,57 | 13,79 | 14,07 | 14,31 |
| Nafarroa Garaia                                                                 | 14,32 | 14,53 | 14,72 | 15,01 | 15,25 | 15,43 |
| Bizkaia                                                                         | 11,79 | 12,01 | 12,20 | 12,41 | 12,65 | 12,87 |
| Lapurdi                                                                         | 16,62 | 16,54 | 15,14 | 15,14 | 15,14 | 15,14 |
| Nafarroa Beherea                                                                | 17,33 | 17,72 | 16,83 | 16,83 | 16,83 | 16,83 |
| Zuberoa                                                                         | 13,67 | 13,60 | 13,96 | 13,96 | 13,96 | 13,96 |
| Euskal Herria                                                                   | 13,09 | 13,28 | 13,40 | 13,59 | 13,83 | 14,04 |
| Finlandia                                                                       | 17,26 | 17,08 | 16,88 | 16,73 | 16,60 | 16,51 |
| EB-27                                                                           | 15,95 | 15,80 | 15,69 | 15,64 | 15,62 |       |
| 65 eta urte gehiagoko biztanleria (%). Euskal Herria eta nazioartea, 2000/2011. |       |       |       |       |       |       |
|                                                                                 | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
| Araba                                                                           | 16,50 | 16,62 | 16,71 | 16,95 | 17,27 | 17,67 |
| Gipuzkoa                                                                        | 18,21 | 18,34 | 18,39 | 18,65 | 18,99 | 19,43 |
| Nafarroa Garaia                                                                 | 17,44 | 17,45 | 17,25 | 17,26 | 17,36 | 17,62 |
| Bizkaia                                                                         | 19,07 | 19,18 | 19,27 | 19,49 | 19,80 | 20,11 |
| Lapurdi                                                                         | 23,00 | 23,33 | 21,69 | 21,69 | 21,69 | 21,69 |
| Nafarroa Beherea                                                                | 23,78 | 23,78 | 22,05 | 22,05 | 22,05 | 22,05 |
| Zuberoa                                                                         | 25,62 | 25,05 | 25,81 | 25,81 | 25,81 | 25,81 |
| Euskal Herria                                                                   | 18,65 | 18,75 | 18,68 | 18,81 | 19,05 | 19,36 |
| Finlandia                                                                       | 16,00 | 16,46 | 16,51 | 16,75 | 17,01 | 17,51 |
| EB-27                                                                           | 16,78 | 16,94 | 17,06 | 17,20 | 17,38 | -     |
| Jaiotza kopurua (mila biztanleko). Euskal Herria eta nazioartea, 2000/2010.     |       |       |       |       |       |       |
|                                                                                 | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
| Araba                                                                           | 9,60  | 9,87  | 10,30 | 10,20 | 10,48 |       |
| Gipuzkoa                                                                        | 10,16 | 10,29 | 10,33 | 10,12 | 10,21 |       |
| Nafarroa Garaia                                                                 | 10,88 | 10,89 | 11,33 | 10,85 | 10,64 |       |
| Bizkaia                                                                         | 8,84  | 9,12  | 9,47  | 9,14  | 9,19  |       |
| Lapurdi                                                                         | 10,88 | 10,35 | 10,08 | 10,06 | 9,82  |       |
| Nafarroa Beherea                                                                | 12,83 | 11,42 | 10,45 | 11,19 | 10,28 |       |
| Zuberoa                                                                         | 8,62  | 7,92  | 8,01  | 8,17  | 10,14 |       |
| Euskal Herria                                                                   | 9,82  | 9,93  | 10,18 | 9,91  | 9,92  |       |
| Finlandia                                                                       | 11,20 | 11,13 | 11,23 | 11,35 | 11,40 |       |
| EB-27                                                                           | 10,59 | 10,67 | 10,91 | 10,75 | 10,71 |       |



| Heriotza kopurua (mila biztanleko). Euskal Herria eta nazioartea, 2000/2010.                                                                                                                              |       |       |       |       |       |      |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------|-------|-------|-------|-------|------|
|                                                                                                                                                                                                           | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011 |
| Araba                                                                                                                                                                                                     | 7,40  | 7,86  | 7,74  | 7,89  | 7,61  |      |
| Gipuzkoa                                                                                                                                                                                                  | 8,53  | 8,92  | 8,94  | 8,88  | 8,67  |      |
| Nafarroa Garaia                                                                                                                                                                                           | 8,23  | 8,52  | 8,53  | 8,16  | 7,82  |      |
| Bizkaia                                                                                                                                                                                                   | 9,09  | 9,32  | 9,38  | 9,42  | 9,36  |      |
| Lapurdi                                                                                                                                                                                                   | 10,86 | 11,19 | 10,36 | 10,43 | 10,42 |      |
| Nafarroa Beherea                                                                                                                                                                                          | 12,73 | 11,92 | 12,63 | 13,92 | 11,89 |      |
| Zuberoa                                                                                                                                                                                                   | 13,77 | 12,74 | 12,70 | 11,90 | 14,14 |      |
| Euskal Herria                                                                                                                                                                                             | 8,80  | 9,09  | 9,06  | 9,01  | 8,84  |      |
| Finlandia                                                                                                                                                                                                 | 9,15  | 9,30  | 9,26  | 9,37  | 9,51  |      |
| EB-27                                                                                                                                                                                                     | 9,63  | 9,69  | 9,73  | 9,70  | -     |      |
| Iturriak: INE (Erroladak), INSEE (Population Légale eta Biztanleriaren Zentsuak) eta Eurostat.                                                                                                            |       |       |       |       |       |      |
| Oharrak Iparralderako:                                                                                                                                                                                    |       |       |       |       |       |      |
| 1.- Kontuz Iparraldeko biztanleria osoaren hazkundearen interpretazioarekin, INSEEk egindako udalerrietan                                                                                                 |       |       |       |       |       |      |
| 2.- Adin egituraren azken datuak 2008 urteari dagozkio. Hurrengo urteetarako datu ezean, 2008 urteko adin egitura (%) Population Légaleko biztanleria osoaren datuari aplikatu zaio. Beraz, estimazioa da |       |       |       |       |       |      |
| 3.- Adin egituraren datuak 2000/2005 epean 1999 urteko Biztanleriaren Zentsuaren adin egitura da.                                                                                                         |       |       |       |       |       |      |

## ETORKIZUNERA EUROPATIK BARRENA

IÑAKI BERISTAIN  
Ekonomialaria  
[www.i-beristain.com](http://www.i-beristain.com)

### XEDE EDO HELBURUA

Gaindegia berriki eguneratu ditu Euskal Herriko (Euskal Autonomia Erkidegoko, Iparraldeko eta Nafarroako) Oinarritzko Adierazleak, eta aukera paregabea dugu, beraz, eskualdeek Europak bizi duen krisian erakusten dituzten ezaugarri bereziak zehaztu, haien eboluzio edo bilakaera aztertu, eta egoera berrian izango duten egiteko edo garrantzi handia aurreikusteko.

Lan horiek guztiak egitea orain baino askoz ere errazagoa litzateke baldin eta estatistika homogeneo eta konparagarriak bagenu hiru lurralde-eremu horietarako (Input-Output taulak, esaterako). Gaindegia lan handia egiten ildo horri jarraituz, baina bide luzea dugu oraindik egiteko.

## EUSKAL HERRIKO EKONOMIAREN EZAUGARRIAK

Euskal Herriko (EH) lurraldeen datuei erreparatuz gero, agerikoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) garrantzia, hark biltzen baitu Barne Produktu Gordinaren %72 inguru —Nafarroak %20 eta Iparraldeak %8—, 91.000 milioi euroko bolumenarekin 2009. urtean. Horrez gainera, nabarmentzekoa da zer-nolako garrantzia duen industria-jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren produkzio-egituran, jarduera-eremu horretara lerratzen baitu, hein handi batean, Euskal Herriaren ekonomia.

Itxura batean, Euskal Herrian sortutako balio gordinaren datu orokorrak apalak dira, baina datu horien benetako neurria ikusteko, biztanleko produkzio-datuei erreparatu behar diegu, ez baitiete inolako inbidiarik munduko estatu aurreratuenetako datuei. Horren erakusle ageriko bat da Euskal Herriko barne-produktu gordinak 30.000 euroko zenbatekoa ageri zuela biztanleko 2010. urtean, hau da, Finlandiakoa baino handiagoa (28.100 €/biz.) eta Europar Batasuneko batez bestekoa baino nabarmen





hobea (24.400 €/biz.). Ez da ahaztu behar horiexek direla, hain justu, inguruko erreferentzia aurreratuetak.

Eskulanaren produktibitate handia da Euskal Herriaren produkzio-gaitasun adierazgarri horren arrazoi nagusia. Enpresek, 2008. urteko krisia lehertu arteko urteetan, inbertsio handiak egin zituzten alor horretan, eta, oro har, I+G jardueren aldeko apustu sendoa egin zenez, produktibitateak gora egin du etengabe. Horiek horrela, nazioartean aurreratuen dauden erreferentziazko guneekin konparatuz gero, Euskal Herriko datuak oso onak direla ikusten dugu.

Euskal Herriak biltzen dituen faktore horien guztien ondorioz, lurralde oso lehiakorra dela ikus dezakegu, kanpo-merkatuetak lantzeko joera duena. Horren adierazgarri da, esaterako, esportazioek eta inportazioek erakusten dituzten proportzio handiak lurraldean ekoizten den balio osoarekiko. Alde horretatik, nabarmenezkoa da kanpo-saldoak superabit etengabe eta gorakor bat erakusten duela, batik bat, krisi handia hasi ondorengo lehen urteetan. Euskal Herriak bere inguruko lurraldeetara esportatzen ditu ondasunak, Espainiara, Frantziara eta Europar Batasuneko gainerako herrialdeetara nagusiki. Azken horien artean, aipagarria da Alemaniara egiten diren esportazioak, eskakizun zorrotz eta lehiakortasun handiko ekonomia-eragilea baita. Agerikoa da, beraz, puntako merkatuetan sartzeko gaitasuna dutela euskal enpresek.

## ETORKIZUNeko ERRONKAK

Euskal Herriko ekonomiak oso datu onak eman badizkigu ere, beheranzko joera bati ekin zion 2008ko azken hiruhilekoan, munduko krisi handiaren eraginpean, eta joera horrek bere horretan dirau gaur egun ere. Euskal Herriaren erronka nagusiak, beraz, bat datoz Europar Batasunaren erronkekin, finantzazio-merkatuetan ziurgabetasuna eta eremu politiko-instituzionaletan ezegonkortasuna agerikoak diren garaiotan.

Egoera larria den arren, Euskal Herriak eta bere moduko herriek une honetan bertan dituzten aukerak nabarmendu nahi ditut, bistakoa baita eredu europarra agorturik dagoela. Zutik irauteko mahaiak behar dituen hiru hanketatik bi soilik ditu, gaur egun, Europako Erkidegoak.

Batasun Ekonomikoa da lehen zutabe edo hanka, merkatu bakarrean eta ondasun, kapital, zerbitzu eta pertsonen zirkulazio askearen gainean eraikia, eta Moneta Batasuna bigarrena, euroa eta Europako Banku Zentralak zehaztutako moneta-politikan oinarritua. Hori guztia, ordea, ez da nahikoa: Europa eraikitzeko, Batasun Politiko egiazko batekin osatu behar ditu egungo hanka edo zutabe horiek. Horretarako, haren kide diren estatuek erakunde europarren esku utzi behar dute alor horretako subiranotasuna.

Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa da botere exekutibo edo gobernu bakarra izatea Europan, Batasun osoa zuzenduko duena, Europako Parlamentuak emandako arauen bidez. Parlamentuak, nola ez, arauak emateko botere osoa izan behar du Europar Batasunarentzat oinarritzekoak diren jardun-eremuetan. Horrekin batera, "beheranzko" transferentzia-prozesu baten bidez indartu behar dira eskualde-erakundeak, behar adinako baliabideak, autonomia eta sendotasuna izan ditzaten, Europako estrategiaren tokiko eta eskualdeko jardun-adarrak indartu eta betetzeko. Asmo handiko helburua da zinez, baina, era berean, ilusionagarria, eta argi dago gogoz ekin behar zaiola lanari, konpromiso irmoz.

## KONKLUSIOAK

Europarekin egin behar dugu bidea hemendik aurrera eta Europako herrien nortasuna indartu, haiek baitira Europa Politikoaren aliatu egiazkoak eta europarren Giza Garapen Jasangarria lortzeko giltzarri. Eredu europar berriaren erreferentziazko osagaiak dira horiek guztiak, eredu horrek eskualdeen esku uzten baititu etorkizuneko lanaren funtsezko zereginak, toki-eremuetatik eta eragile sozioekonomikoengandik hurbilen dauden elementuak diren aldetik.

## EUSKAL HERRIKO OINARRIZKO ADIERAZLE GALERIA: EKONOMIA

**Barne Produktu Gordina biztanleko, Erosteke Ahalmen Parekatuan. Euskal Herria eta nazioartea, 06/10**

|               | 2006   | 2007   | 2008   | 2009   | 2010    | 2011 |
|---------------|--------|--------|--------|--------|---------|------|
| Euskal Herria | 30.589 | 32.694 | 32.110 | 29.977 | 30.422* |      |
| Finlandia     | 27.000 | 29.400 | 29.800 | 26.900 | 28.100  |      |
| EB-27         | 23.700 | 25.000 | 25.000 | 23.500 | 24.400  |      |
| AEB           | 36.400 | 37.700 | 36.700 | 34.200 | -       |      |
| Japonia       | 25.900 | 27.100 | -      | -      | -       |      |

**Lanaren produktibitatea, landuneko (€). Euskal Herria eta nazioartea, 06/10**

|               | 2006   | 2007   | 2008   | 2009   | 2010   | 2011 |
|---------------|--------|--------|--------|--------|--------|------|
| Euskal Herria | 67.855 | 71.781 | 72.170 | 66.867 | 68.016 |      |
| Finlandia     | 58.141 | 62.304 | 62.504 | 58.453 | -      |      |
| EB-27         | 54.417 | 56.591 | 56.240 | 53.924 | -      |      |
| AEB           | 75.519 | 78.199 | -      | -      | -      |      |
| Japonia       | 51.923 | 53.969 | -      | -      | -      |      |

**Enpresa inbertsioa (BPGaren %). Euskal Herria eta nazioartea, 2006/2010.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010   |  |
|---------------|-------|-------|-------|-------|--------|--|
| Euskal Herria | 28,56 | 29,09 | 28,41 | 25,69 | 23,97* |  |
| Finlandia     | 19,99 | 21,32 | 21,43 | 19,39 | -      |  |
| EB-27         | 20,69 | 21,26 | 21,10 | 19,12 | 18,42  |  |
| AEB           | 20,13 | 19,41 | 18,43 | 15,93 | 15,57  |  |
| Japonia       | 23,38 | 23,05 | 23,24 | 21,15 | 20,58  |  |

**Ikerketa eta Garapenean gastua (BPGaren %). Euskal Herria eta nazioartea, 2006/2010.**

|               | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 |
|---------------|------|------|------|------|------|------|
| Euskal Herria | 1,57 | 1,77 | 1,88 | 2,01 | 1,96 | -    |
| Finlandia     | 3,48 | 3,47 | 3,70 | 3,92 | 3,87 | -    |
| EB-27         | 1,85 | 1,85 | 1,92 | 2,01 | 2,00 | -    |
| AEB           | 2,59 | 2,66 | 2,79 | -    | -    | 2,70 |
| Japonia       | 3,40 | 3,44 | 3,45 | -    | -    | 3,30 |

**Esportazioak (BPGaren %). Euskal Herria eta nazioartea, 2006/2010.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
|---------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Euskal Herria | 26,46 | 27,71 | 28,89 | 23,20 | 28,05 | 31,49 |
| Finlandia     | 45,5  | 45,8  | 46,8  | 37,3  | 40,1  | 39,1  |
| EB-27         | 39,5  | 40,1  | 41,3  | 36,8  | 40,6  | 43,5  |
| AEB           | 11,0  | 11,8  | 12,9  | 11,4  | 12,7  | 13,8  |
| Japonia       | 16,2  | 17,7  | 17,7  | 12,7  | 15,2  | 15,2  |

**Inportazioak (BPGaren %). Euskal Herria eta nazioartea, 2006/2010.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
|---------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Euskal Herria | 27,04 | 26,91 | 27,07 | 18,04 | 22,15 | 26,36 |
| Finlandia     | 40,8  | 40,7  | 43,1  | 35,7  | 39,2  | 39,6  |
| EB-27         | 39,1  | 39,5  | 41,1  | 35,8  | 39,8  | 42,4  |
| AEB           | 16,7  | 16,9  | 17,9  | 14,2  | 16,2  | 17,7  |
| Japonia       | 14,9  | 16,1  | 17,5  | 12,3  | 14,0  | 16,1  |



| Kanpo saldoa (BPGaren %). Euskal Herria eta nazioartea, 2006/2010.                                  |        |        |        |       |       |       |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|--------|--------|--------|-------|-------|-------|
|                                                                                                     | 2006   | 2007   | 2008   | 2009  | 2010  | 2011  |
| Euskal Herria                                                                                       | -0,58  | 0,80   | 1,82   | 5,16  | 5,90  | 5,13  |
| Finlandia                                                                                           | 4,70   | 5,10   | 3,70   | 1,60  | 0,90  | -0,50 |
| EB-27                                                                                               | 0,40   | 0,60   | 0,20   | 1,00  | 0,80  | 1,10  |
| AEB                                                                                                 | -5,70  | -5,10  | -5,00  | -2,80 | -3,50 | -3,90 |
| Japonia                                                                                             | 1,30   | 1,60   | 0,20   | 0,40  | 1,20  | -0,90 |
| Pertsona aktiboko errenta erabilgarria (€). Euskal Herria eta nazioartea, 2006/2008.                |        |        |        |       |       |       |
|                                                                                                     | 2006   | 2007   | 2008   | 2009  | 2010  | 2011  |
| Euskal Herria                                                                                       | 34.682 | 36.924 | 38.944 | -     |       |       |
| Finlandia                                                                                           | 30.523 | 32.044 | 33.484 | -     |       |       |
| EB-27                                                                                               | 29.772 | 30.839 | 31.041 | -     |       |       |
| Iturriak: EUROSTAT, INSEE, NEI, EUSTAT eta Espainiako Industria, Turismo eta Komertzio Ministeritza |        |        |        |       |       |       |
| * Probisionala                                                                                      |        |        |        |       |       |       |
| Oharra: 2012 urtean BPGaren gaineko adierazle guztiak berrikusi dira.                               |        |        |        |       |       |       |

## ETORKIZUNAK PLANIFIKAZIO ZORROTZA ESKATZEN DIGU

ANJELES IZTUETA AZKUE  
Matematikaria

Azken hamarkadako datuak ikusita nabaria da jaiotze tasak goranzko joera hartu duela, eta noski, eragina izango zuten azken urteetan horretara bideratutako gizarte laguntzak eta familia planak. Hala ere krisia dela eta hasiak gara beheranzko bidean. Nire ustez arreta gunea izaten jarraitu beharko lukete familia planak, guraso gazteak eskubidea dutelako eta Euskal Herriak beharrezko duelako bere iraupenean.

Euskal Herria oso herri zaharkitua da, gaur egun bost biztanleetatik batek 65 urtetik gora dauzka, eta proportzio hau Europar Batasuneko mediatik gora dago. Honek nahi eta ez ondorioak ditu bai ekonomian, bai osasungintzan eta bai gizarte politikan, politikan eta herrigintzan oro har. Guzti honek alde aurretikako planifikazio zorrotza eskatzen du. Egoerari aurre egin beharrean gaude eta beldur naiz ez ote diogun behar den arretaz heltzen gaiari.

Laburbilduz azken hamarkadako datuei begirada bat ematen badiogu, hau baieztatzen digute:

1. 2001etik 2011ra, Euskal Herriko biztanleria osora, ia 200.000 pertsonetan hazi da. Nabarmenki gehien hazi diren lurraldeak Nafarroa Garaia %16 eta Araba %16 izan dira.

2. 2011ean Euskal Herriko dentsitatea, 148,88 bizt/km<sup>2</sup>, Europar Batasunaren batezbestekoaren, 116,94 bizt/km<sup>2</sup>, nahiko goitik dago. Biztanleriaren dentsitatea gehien duen lurraldea Bizkaia 518,17 bizt/km<sup>2</sup> da.

3. 2001etik 2011ra, Euskal Herrian, 15 urtetik beheragoko biztanleriaren proportzioa etengabe handitzen joan da, eta hamarkada honetan % 12,53tik %14,04ra igo da. Hala eta guztiz Finlandiako %16,51 eta baita Europar Batasuneko %16,50tik behera dago.

4. 2010ean Euskal Herriko jaiotza tasa mila biztanleko 9,92 da, Euskal Herrian jaiotza kopuruak goranzko joera izan du eta mila biztanleko 9 jaiotza izatetik 2001ean, 10,18 izatera pasa ginen 2008an, eta azken urteetan pixkakako beherazko joeran hasi gara.

5. 2001etik 2011ra, Euskal Herrian, 65 urtetik goragoko biztanleriaren proportzioa etengabe handitzen joan da, eta 2011ean %19,36 genuen proportzioa. Beti ere Europar Batasuneko mediatik gora gaude.

6. 2001tik 2011ra, Euskal Herriko heriotza tasa egonkorra da, Europar Batasuna tasaren behetik gaude, eta 2010ean 8,84koa zen mila biztanleko. Tasarik baxuena Arabak 7,61 eta Nafarroa Garaiak 7,82 daukate.

Etengabe berritzen eta osatzen den populazioa dugu herrigintzaren ardatza. Beraz, prestatu gaitzen!.



## EUSKAL HERRIKO OINARRIZKO ADIERAZLE GALERIA: GIZARTEA

**15 urtetik gorako biztanleriaren hezkuntza maila. Gutxienez bigarren hezkuntza amaituta duen biztanleria (%). Euskal Herria eta nazioartea, 1999/2010.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011 |
|---------------|-------|-------|-------|-------|-------|------|
| Euskal Herria | 41,16 | 41,44 | 41,55 | 41,11 | 42,10 |      |
| Finlandia     | 49,33 | 50,00 | 50,38 | 50,26 | 50,31 |      |
| EB-27         | 27,95 | 42,04 | 42,59 | 42,90 | 43,24 |      |

**Zientzia eta teknologian graduatuak 20-29 urte bitartean (mila biztanleko). Euskal Herria eta nazioartea, 1999/2008.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010 | 2011 |
|---------------|-------|-------|-------|-------|------|------|
| Euskal Herria | 23,25 | 23,02 | 21,87 | -     |      |      |
| Finlandia     | 17,90 | 18,80 | 24,30 | 19,00 |      |      |
| EB-27         | 13,50 | 13,80 | 14,50 | 14,30 |      |      |
| AEB           | 10,30 | 10,10 | 10,10 | 10,30 |      |      |
| Japonia       | 14,40 | 14,40 | 14,30 | 14,20 |      |      |

**Enplegu tasa. Euskal Herria eta nazioartea, 1999/2011.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
|---------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Euskal Herria | 65,79 | 66,98 | 66,92 | 64,37 | 64,26 | 64,58 |
| Euskal Herria | 66,95 | 67,62 | 67,32 | 63,43 | 63,77 | 64,28 |
| Finlandia     | 69,30 | 70,30 | 71,10 | 68,70 | 68,10 | 69,00 |
| EB-27         | 64,40 | 65,30 | 65,80 | 64,50 | 64,10 | 64,30 |
| Japonia       | 70,00 | 70,70 | 70,70 | 70,00 | 70,10 | -     |
| AEB           | 72,00 | 71,80 | 70,90 | 67,60 | 66,70 | -     |

**Emakumezkoen enplegu tasa. Euskal Herria eta nazioartea, 1999/2011.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
|---------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Euskal Herria | 57,63 | 58,11 | 59,60 | 58,14 | 58,52 | 59,44 |
| Euskal Herria | 58,57 | 59,23 | 60,20 | 57,79 | 58,50 | 59,82 |
| Finlandia     | 67,30 | 68,50 | 69,00 | 67,90 | 66,90 | 67,40 |
| EB-27         | 57,20 | 58,20 | 58,90 | 58,40 | 58,20 | 58,50 |
| Japonia       | 58,80 | 59,50 | 59,70 | 59,80 | 60,10 | -     |
| AEB           | 66,10 | 65,90 | 65,50 | 63,40 | 62,40 | -     |

**55 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasa. Euskal Herria eta nazioartea, 2000/2010.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011  |
|---------------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Euskal Herria | 43,00 | 44,34 | 44,82 | 41,71 | 43,11 | -     |
| Finlandia     | 54,50 | 55,00 | 56,50 | 55,50 | 56,20 | 57,00 |
| EB-27         | 43,50 | 44,60 | 45,60 | 46,00 | 46,30 | 47,40 |
| Japonia       | 64,70 | 66,10 | 66,30 | 65,50 | 65,20 | -     |
| AEB           | 61,80 | 61,80 | 62,10 | 60,60 | 60,30 | -     |

**Langabezia tasa. Euskal Herria eta nazioartea, 1999/2011.**

|               | 2006 | 2007 | 2008 | 2009  | 2010  | 2011  |
|---------------|------|------|------|-------|-------|-------|
| Euskal Herria | 4,67 | 4,05 | 4,79 | 8,99  | 9,99  | 11,38 |
| Euskal Herria | 6,89 | 6,17 | 6,79 | 11,11 | 10,99 | 12,24 |
| Finlandia     | 7,70 | 6,90 | 6,40 | 8,20  | 8,40  | 7,80  |
| EB-27         | 8,30 | 7,20 | 7,10 | 9,00  | 9,70  | 9,70  |
| Japonia       | 4,10 | 3,90 | 4,00 | 5,10  | 5,10  | 4,60  |
| AEB           | 4,60 | 4,60 | 5,80 | 9,30  | 9,60  | 8,90  |

**Emakumezkoen langabezia tasa. Euskal Herria, 1999/2011.**

|               | 2006 | 2007 | 2008 | 2009  | 2010  | 2011  |
|---------------|------|------|------|-------|-------|-------|
| Euskal Herria | 5,58 | 4,84 | 5,55 | 8,88  | 9,56  | 10,93 |
| Euskal Herria | 8,97 | 8,02 | 8,16 | 11,68 | 11,52 | 12,93 |
| Finlandia     | 8,10 | 7,20 | 6,70 | 7,60  | 7,60  | 7,10  |
| EB-27         | 9,00 | 7,90 | 7,60 | 9,00  | 9,60  | 9,80  |
| Japonia       | 3,90 | 3,70 | 3,80 | 4,80  | 4,60  | 4,20  |
| AEB           | 4,60 | 4,50 | 5,40 | 8,10  | 8,60  | 8,50  |

**Iraupen luzeko langabezi tasa. Euskal Herria eta nazioartea, 1999-2011.**

|               | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 |
|---------------|------|------|------|------|------|------|
| Euskal Herria | 1,49 | 0,92 | 1,06 | 2,01 | 3,72 | 4,66 |
| Euskal Herria | 2,01 | 1,63 | 1,65 | 2,96 | 4,03 | 5,53 |
| Euskal Herria | 1,79 | 1,44 | 1,48 | 2,49 | 3,32 | -    |
| Finlandia     | 1,90 | 1,60 | 1,20 | 1,40 | 2,00 | 1,70 |
| EB-27         | 3,70 | 3,10 | 2,60 | 3,00 | 3,90 | 4,10 |
| Japonia       | 1,40 | 1,20 | 1,30 | 1,40 | 1,90 | -    |
| AEB           | 0,50 | 0,50 | 0,60 | 1,50 | 2,80 | -    |

**Pobrezian murgiltzeko arrisku tasa. Pertsona kopurua (%). Euskal Herria eta nazioartea, 2004/2010.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010  | 2011 |
|---------------|-------|-------|-------|-------|-------|------|
| Euskal Herria | 10,09 | 10,69 | 7,46  | 9,32  | 10,90 |      |
| Finlandia     | 12,60 | 13,00 | 13,60 | 13,80 | 13,10 |      |
| EB-27         | 16,50 | 16,50 | 16,40 | 16,30 | 16,40 |      |

**Gizarte babesa (BPGren%). Euskal Herria eta nazioartea, 2000/2008.**

|               | 2006  | 2007  | 2008  | 2009  | 2010 | 2011 |
|---------------|-------|-------|-------|-------|------|------|
| Euskal Herria | 19,62 | 19,72 | 20,85 | -     |      |      |
| Finlandia     | 26,42 | 25,37 | 26,16 | 30,26 |      |      |
| EB-27         | 26,6  | 25,7  | 26,7  | 29,5  |      |      |

**Iturriak: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT**



## Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Udalak:



**Alegiako**  
Udala



**Asteasu**



**Bergarako Udala**



**Busturiko**  
Udala



**Hernaniko**  
Udala



**Mutrikuko Udala**

TOLOSAKO UDALA



Zarauzko Udala